

Kontzeju

www.ohotzi.eus



Herriko Ohari



@herrikoohari



herrikoohari



Ohari Ohari

DELIK

Oñatika Udol bidizkaria | 2015eko Abendua | 256. zenbakia



HIRU HAMARKADA
Oñatin igerilariak heziz

30
ALORA MENDI K.E.



Oñatiko gazteen harremanak irauli zituen elkarte

OÑATZ izena herriko dantza taldearekin lotzen dugu gaur egun, baina 1960-70eko hamarkadetan hori baino askoz gehiago izan zen Oñatz elkarte. Herriko gazteria zuzpertz zuen; neskak eta mutilak elkarrekin egoteko aukera eman zuen, eta orduko gazteen asmo eta amets asko aurrera ateratzeko bideak zabaldu zituen. Esan liteke, 1968ko maiatzeko iraultza aurreratu egin zela pittin bat Oñatin Oñatz elkartearen eskutik.

Ez zuen bizitza luzerik izan; 1964an sortu eta 1977an desegin zen, baina urte urte horietan zehar ekimen eta ekitaldi ugari antolatu zituzten: dantzaldiak, kontzertuak, hitzaldiak, bertso-saioak, antzerki taldeak, abesbatza, dantza taldea, tanborrada, aldizkaria... Orduko protagonisten testigantzekin eta han-hemenka lortu ditugun agiri eta argazkien bidez laburbildu nahi izan dugu Oñatz elkartearen historia motz baina mamitsua.

ELKARTE MISTOA

Antonio Mallea agustiño laterandarra izan zen Oñatz elkartearen bultzatzaile nagusietako bat. Garai hartan herriko emakume talde batekin bildu ohi zen Mallea, herrigintza eta konpromiso sozialerako bideak urratzeko asmoz. Eta, hala, elkarte bat sortzea pentsatu zuten, aukera emango zuena herriko neskak eta mutilak elkarrekin egoteko, eta gizarte nahiz kultura arloan zituzten kezak eta egarriak bideratzeko.

Beraz, elkartearen araudi edo estatutu moduko bat prestatu, eta batzar ireki baterako deia luzatu zieten



Goian, Oñatz elkartearen batutako gazte taldea. Lerro hauen gainean *Los Migs* taldea -Javier Elorza (baxua), Juan Antonio Mendikoa (gitarra), Jose Nicolas Galdos (bateria) eta Juan Miguel Ordoki (abeslaria)- Oñatzen lokalean jotzen.

Eskuman, herriko neska-mutilak elkarrekin dantzan. Argazkiak: udal artxiboko Jesus Mari Arzuaga funtsa.



Herriko neskak eta mutilak elkarrekin egoteko aukera eskaini zuen Oñatz elkarteak. Euskadi etorbideko 4-6ko sotoan izan zuen lehen egoitza

herriko gazte guztiei. Lepo bete omen zen Garoa zine aretoa. Eztabaida eta tira-birak ere ez ziren falta izan, baina aurrera atera zen elkartearen eratzeko asmoa, gazteak gogo handiz zeudelako zerbait egiteko.

Elkartearantzako izen proposamen ezberdinak aurkeztu ziren, eta babes gehien lortu zuten bi aukeren artean erabaki behar izan zuten: *Gaztedi Berri* eta *Oñatz* (Malleak berak proposatua).

Zuzendaritza taldea osatu eta elkartearen ofizialki eratu, lokal bat aurkitzea izan zen hurrengo lana. Lokal bat edukitzea funtsezkoa zen, herriko gazteak elkartu, bilerak egin eta ekimenak aurrera atera ahal izateko.

Azkenean, Euskadi etorbideko 4-6 zenbakiko sotoan lortu zuten lokala, Ezpeleta aterki lantegia izandakoaren azpian. Txukunketa lanak egin eta taberna bat egokituta, 1966ko udazkenean inauguratu zuten Oñatzen lehen egoitza.

Oñatz elkartearen irudia edo logoa ere orduantxe sortu zuten. Institutoan lanean ari zen M^a Rosa Barambio Arte Ederretako irakasleak egin zuen: Aloña mendiko tontorra, eta bertara doazen txantxikuen oinatzak. Gaur egun Oñatz dantza taldeak erabiltzen du Oñatz elkartearen jatorrizko bandera, eta bertan ikus daitezke aipatutako irudia.

(Hurrengo orrira)



Oñatz elkarteak Euskadi Etorbidean izan zuen lehenengo lokalaren inaugurazioa, 1966ko urrian. Behean, Oñatzen antolatutako dantzaldi bateko irudiak. (Udaleko artxiboko Jesus M^a Arzuaga funtsa)



Harrera oso ona izan zuen Oñatz elkarteak, herriko gazteen artean horrelako elkarte edo topagune baten beharra eta egarria handia zelako, eta ehunka bazkide izan zituen. Estatutuen arabera, bazkide izateko 18 urte beteta eduki behar ziren, eta ezkonduakoa bazkide izateari uzten zitzaion automatikoki.

ANTZERKI TALDEAK ETA ABESBATZA

Elkartea sortu eta lokala martxan jarrita, Oñatz elkarte lanean hasi zen. arlo ezberdinetan. Antzerkian, esaterako, bi talde eratu ziren, bata euskarazkoa eta bestea gaztelarazkoa.

Euskarazko taldeak hiru antzezlan taularatu zituen: *Denak nire semeak* (Arthur Miller), *Gizonak eta Ez* (Manuel de Pedrolo) eta *Justizia txistulari* (Gabriel Aresti). Laugarren obra bat ere prestatu zuten, baina ez ziren estrenatzera iritsi. Talde-kideetako batzuk kanpoan ikasten ari ziren eta horrek zaildu egiten zuen jarduna.

Hala ere, ibilbide motza baina oparoa egin zuen taldeak. Oñatin ez ezik, beste hainbat herritan ere taularatu zituzten ikuskizunak. Aurre-estrenaldia Araotzeko saloian egiten zuten beti, eta gero, Garoa aretoan herri osoaren aurrean estreinatu ondoren, Bergara, Arrasate, Eskoriatza, Eibar, Urretxu, Zaldibia, Errenteria eta Zarautzera ere joan ziren.

Gaztelarazko taldeak bi

Oñatzeko bazkide izateko 18 urte beteta eduki behar ziren, eta ezkondu ondoren bazkide izateari utzi behar zioten



Oñatz elkartearen lokalean batutako gazteen irudiak. (Udaleko artxiboko Jesus M^a Arzuaga funtsa)



ANE MERTZERIK

- Jostako zarak
- Lantzeria
- Urneen jantziak

Kale Barria, 51 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
 Faxes: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

obra taularatu zituen: *La ciudad no es para mí* (Fernando Lázaro Carreter) eta *La tercera palabra* (Alejandro Casona). Hauek ez ziren kanpora irten eta Garaio aretoan bakarrik taularatu zituzten.

Antzerkia ez ezik, kantua ere jorratu zuten Oñatz elkartearen eta abesbatza mistoa sortu zuten Patxi Anduaga agustiñoaren zuzendaritzapean. Berrogei bat laguneko korala zen eta, besteak beste, Tolosako Abesbatzen Lehiaketan parte hartu zuen, gerora hainbesteko ospe eta sona hartu duen lehiaketan hain justu.

Oñatzeko bazkide ez ziren herriko hainbat ahotsek ere abestu zuten Oñatz koralean, eta Jose Mari Arzuagarekin (Irrintzi Otxoteko zuzendaria) abesbatza indartzeko asmoa ere izan zuten, baina, zoritxarrez, Arzuagaren ustekabeko heriotzarekin bertan behera geratu ziren asmo haiek.

Oñatz abesbatzak bere bidea jarraitu zuen Imanol Muruaren zuzendaritzapean. Handik urte batzutura izena aldatu zioten, gaur egun ezagutzen dugun *Oñati Abesbatza* bilakatzeko.

DANBORRADA ETA DANTZA TALDEA

Herriko gazte gehienak Oñatzen inguruan biltzen zirenez, herriko jaietako ekitaldi asko ere beraiek antolatzen zituzten. San Migel bezperako tanborrada esaterako, Oñatzen ekimenez sortu zen 1967an. Erropak eta materiala Donostiatik ekartzen zituzten



'Denak nire semeak' (Arthur Miller) antzezlaneko aktoreak eta obrako pasarte bateko irudia. (Udal artciboko Jesus M^a Arzuaga funtsa)



Bi antzerki talde sortu ziren Oñatz elkartearen baitan; euskarazkoak hiru obra taularatu zituen eta gaztelarazkoak bi



'La ciudad no es para mí' (Fernando Lázaro Carreter) eta 'La tercera palabra' (Alejandro Casona) antzezlanetako irudiak (Udal artciboko Jesus M^a Arzuaga funtsa)



aurreneko urteetan, eta karroza ikusgarriak prestatzen zituzten elkarteko kideen artean mimo handiz. Bestalde, herriko jaien atarian Kultur Hamabostaldia antolatu ohi zuen Oñatzek, hitzaldi, bertso-saio, kontzertu, dantzaldi eta abarrekin.

Oñatz dantza taldea bera ere, aurten 45 urte bete dituen, Oñatz elkartearen baitan sortu zen. Bertako lau emakume hasi ziren auzo-eskolan ikasitako dantzak (sagar dantza, ezpata dantza eta zinta dantza) irakasten, eta 1970ean lehenengo Haurren Eguna antolatu zuten, arrakasta handiz antolatu ere, Euskal Herriko txoko ezberdinetako 1.200 dantzari batu baitziren Oñatin.

Hurrengo urterako Zubillaga auzoko *Izarrak* dantza taldeko arduraduna zen Jesus Irizarrek hartu zuen taldearen ardura, eta Eskoriatzako Gorosarri taldeko Mario Padillaren laguntzarekin dantza errepertorioa osatuz joan ziren poliki poliki.

Oñatz elkartearen lokala txiki geratu zen entsaioetarako eta, Benediktinek utzitako aretora pasa ziren. Dantza taldeak indar handia hartu zuen, eta Oñatz elkarte desegin ondoren ere bere bidea jarraitu du gaur arte.

Jubilatuaren Eguna ere Oñatz elkartearen eskutik antolatu zen aurreneko aldiz 1973an. Larrañan agustiñoek zuten jantokian ospatu zen, herriko nagusien omenez antolatutako herri-afari baten bidez.

AUTOGESTIOA OINARRI

Autokudeaketan oinarritutako elkarte izan zen Oñatz. Ez zuen inolako dirulaguntzarik jasotzen udalaren aldetik, eta ekitaldi

Oñatzeko zuzendaritzako 14 kide Madrilen epaituak

Aldizkari klandestinoak kaleratzea leporatu zion orduko Tribunal de Orden Publico-k



Oñatz elkarteak 'Boletín Juvenil' izeneko aldizkari bat argitaratzen zuen maiztasun finko barik. Bost zenbaki atera zituen guztira. Elkartearen jardunaren berri, eta herriko nahiz mundu mailan albiste ziren gerra (Vietnam...) eta bestelako arazo sozialen inguruko iritzi artikuluak jasotzen ziren bertan.

Azkenengo zenbakian (1967ko azaroa) 'Haga usted deporte, pero no del bueno' izeneko artikulu bat argitaratu zen, gazte batzuen atzetik korrika ageri den polizia baten irudiarrekin. Urbian ospatu zen gazte mendizaleen finalisten egunean izandako errepresioa salatzen zen bertan.

Garai hartako Tribunal de Orden Publico-k salaketa jarri zuen Oñatz elkartearen aurka, eta orduko zuzendaritzako 14 lagunak (M^a Pilar Saiz, Maria Soledad Ayastui, M^a Nieves Inda, M^a Pilar Igartua, M^a Tere Urtaza, Santiago Lopez, Miguel Angel Irizar, Miguel Ugarte, Jesus M^a Castaños, Jose Luis Agirre, Jose Manuel Egaña, Jesus M^a Biain, M^a Carmen Mugarza eta Maria Ugarte) Madrilen epaitu zituzten. Fiskalak bi hilabeteko gartzela zigorra eskatu zuen bakoitzarentzat, baimenik gabeko argitalpena kaleratzeagatik. Defentsaren argudioak aintzat hartuz, epaileak ebatzi zuen aldizkaria elkarteko bazkideen artean bakarrik banatu zela, fiskalak egozten zien lege-haustea betetzeko inolako asmorik gabe, eta akusatuak absolbitzea erabaki zuen, 1968ko apirilaren 26an jakitera emandako sententzian.



Salaketa eragin zuen artikulua

HARALD LINDER
ETIKETAN ERA GUZTITANO KONPONKETAK
 PERSIANAK, LEBIAK, AUR FLOTATZEAK, AGORAK, PINTURA LARRIK...

WIESENHOFER ETIA MONTAJZULEIA
 30VZAREAL BEMIANE eta ASOAZ GELINGO
 ELKARRIA 12.84 rdb. - 20090 OñATI - GIPUZKOA
695 70 91 04 - 943 04 47 77

ZURICH
 M^a del Mar Urrutia Negeruela

Motxion Kalea 5 behea
 Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Murgikorra: 620 77 66 20



Goian, Oñatz korala, eta Oñatzek antolatutako lehen Jubilatuen Eguneko irudia, elkarteko buru zen Lourdes Idoiaga txapela jartzan agiri delarik. Ezkerrean, Oñatzeko nesken futbol taldea, eta Angel Egaña epailea elkartearen aldeko partidu batean. (Jesus M^a Arzuaga funtsa)

ezberdinak antolatzen zituen en (dantzaldiak, bertso jaialdiak, kontzertuak...) diru-baliabideak lortzeko.

Ekitaldi horiek antolatu ahal izateko udalaren baimena lortzea izaten zen beraien borroka handiena, Frankismoko garai ilun haietan ez baitzen batere erraza euskal kultur giroko ekitaldie-tarako baimena lortzea. *Ez Dok Amairu* Oñatira ekarri zutenean esaterako, (1971ko abendua) Gobernu Zibilaren baimen gabe antolatu behar izan zuten, Oñatiko alkatearekin adostu ondoren; irratietan publizitaterik ez egiteko, eta goardia zibilaren koartelera bi gonbidapen eramatea eskatu zien Reyes Korkostegik.

HERRIAREKIN KONPROMETITUAK

Tamalez, ibilibide motza izan zuen Oñatz elkarteak. 1970ean egoitza berria estreinatu zuen; Euskadi etorbidekoa utzi eta Kale Barrian Zahor txokolaterixa izandako lokalera aldatu ziren. Zazpi urte eman zituen bertan, 1977an desegin zen arte. Zergatik? Ez omen zen arrazoi

zehatzik egon. Ezkondu orduko elkarteko bazkide izateari utzi beharrak ez zion askorik lagunduko, eta, gainera, garai hartan hasi ziren sortzen elkarte gastronomikoak herrian. Eta, badirudi, poliki poliki motelduz joan zela hasierako sua.

Nolahani ere, urte horietan egindako lana hor dago, eta garbi dagoena da, Oñatz elkarteak iraultza ekarri zuela Oñatira, eta bertan lanean aritu ziren neska eta mutilek konpromiso handia erakutsi zutela herriarekiko eta euskal kulturarekiko. Urte ilun eta gogorak ziren, eta garai hartan zeuden eragozpen legal guztiekin oso zaila zen edozer antolatzea, baina herriko gazteek hainbat ekimen atera zituzten aurrera, konpromiso handia erakutsiz.

Oñatz elkarteak iraultza ekarri zuen Oñatira, eta bertan lanean aritu ziren neska eta mutilek konpromiso handia erakutsi zuten herriarekiko eta euskal kulturarekiko. Garai hartan zeuden oztopo legal guztiekin oso zaila zen edozer antolatzea, baina herriko gazteek aurrera atera zituzten hainbat ekimen.

MAPFRE
Oñati

Perlu kale, 5
20660 Oñati

Tel.: 943 78 12 65
Faxa: 943 78 07 65

ARRI
Industria Hornidurak
Burdindegia

Orain Oñatiarren zerbitzura!

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

Elbarrituentzako aparkalekuak errespetatzea eskatuko du TRAUTIK

> Herritarrak kontzientziatzeko ekitaldia egingo du abenduaren 12an herriko plazan

Abenduaren 12an herriko plazara irtengo dira TRAUTI elkartekoak, ezinduentzako aparkalekuak errespetatu ditzagun eskatzeko. Ondoko argazkikoa bezalako txartel bana jarriko dute ezinduen aparkalekuetan, eta ondoren mahai bat jarriko dute Foruen enparantzan, txorizo pintxoak banatu eta herritarrak kontzientziatzeko helburuarekin.

Ezinduentzako aparkalekuak ez dira opari edo pribilegio bat, gogorazten du Trautik; mugikortasun arazoak dituzten pertsonen integrazioa errazteko guneak dira eta, beraz, aparkaleku horiek errespetatzea eskatzen dute.

Zoritxarrez, gehiegitan ikusten dugu mugikortasun arazorik ez duen jendeak okupatzen dituela aparkaleku hauek, seme-alaben bila kiroldegira doazenean, edo kultur etxera liburu bat uztera doazenean... eta beste hainbat kasutan. "Lau argiak piztuta uzten dituzte, momentutxo bat bakarrik izango dela adieraziz, baina kontua da, momentu horretan, beharbada, elbarritu batek behar zuela aparkaleku hori, eta okupatuta zegoela" salatzen dute Trauti-koek.

Aparkatzeko txartelaren erabilera desegokiak ere salatzen ditu Trautik. Askotan, txartelaren titularra kotxean egon barik, bere senideren batek egiten du aparkalekuen iruzurrezko erabilera. Bestalde, txartelaren titularren artean ere ba omen dira erreserbatutako gune hauek aparkaleku pribatu bezala erabiltzen dituztenak, aparkaleku plazak egun osoan edo egunetan okupatuz.

Beraz, hori guztia kontuan hartuz, herritarrak kontzientziatzea izango da ekainaren 12ko ekitaldiaren helburua, eta bide batez, udaltzaingoa zorrotzago joka dezan eskatzea.

Elbarrituentzako aparkalekuak ez dira opari edo pribilegio bat; beharra duten pertsonen gizarteratzen laguntzeko baizik



NI moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Hazlendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

Ezinduentzako txartelaz jakin beharrekoak

1 NOR IZAN DAITEKE TXARTELAREN

ONURADUNA?

Foru Aldundiko Balorazio eta Orientazio Unitateak aitortutako minusbaliotasuna (%33tik gorakoa) eta mugikortasun arazoak (gutxienez 7 puntu) dituzten gizon-emakumeak.

2 NON ESKATU BEHAR DA TXARTELA?

Udaleko Gizarte Zerbitzuetako bulegoan egin behar da eskaera, eta Udalak Foru Aldundira bideratzen du. Ondoren, diputazioko Balorazio Unitateak hitzordua jartzen dio eskatzaileari, elbarritasun maila eta mugikortasun arazoan azterketa egiteko, eta txartela dagokion ala ez ebazteko.

3 ZEIN ABANTAILA ESKAINTZEN DU?

Ezinduentzat erreserbatutako lekuetan aparkatzeko aukera ematen du txartelak. Horrez gain, TAO guneetan, zamaketa (karga-deskarga) guneetan, eta aparkatzea debekatuta dagoen bide publikoetako beste leku batzuetan aparkatzeko aukera ere ematen du, behar bezala justifikatuta badago, eta beharrezko denboran bakarrik, eta oinezkoei nahiz trafikoari oztopo egiten ez bazaio.

4 OÑATIN BAKARRIK ERABIL DAITEKE?

Ez. Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erabil daiteke txartela, eta Europar Batasuneko kide diren estatu guztietan ere bai. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da, txartela Oñatitik kanpora erabili behar izanez gero, udalerririk horrek izan dezakeen araudi edo ordenantza espezifikoak errespetatu eta bete beharko dela. (Euskal Herriko herri batzuetan, esaterako, mugatuta dago ezinduentzako aparkalekuak erabiltzeko denbora tartea.

5 NOIZ EDO ZEIN KASUTAN ERABIL DAITEKE TXARTELA?

Txartelaren titularra gidatzen doanean; edo txartelaren titularra garraiatzeko erabiltzen denean. Bestela debekatuta dago txartelaren erabilera egitea. Txartela erabiltzen denean, ibilgailuaren aurreko aldean jarri behar da, kanpoaldetik argi eta garbi ikusteko moduan, eta tokian tokiko agintaritzak eskatzen badu, txartela aztertzeko baimena eman behar zaio.

6 ZENBAT DENBORARAKO DA TXARTELA?

Txartelak 5 urterako ematen dira eta epe hori igaro ostean berritu egin behar da (ezintasun bereziko kasuetan izan ezik). Txartelaren titularra hiltzen denean, edo bere elbarritasun egoera aldatzen bada, txartela itzuli egin behar da udalGizarte Zerbitzuetara.



200€-ko isuna ezinduentzako aparkalekuak modu desegokian erabiltzeagatik

7 IRUZURRAK ETA ERABILERA DESEGOKIAK.

Trafiko legearen arabera debekatuta dago ezinduentzako guneetan aparkatzea txartelirik gabe. Arau-hauste larria da eta 200 euroko isuna dagokio.

Bestalde, zenbait kasutan txartelaren titularrek beraiek ere egiten dituzte erabilera desegokiak. Kontua da, txartelak denbora mugarik gabe aparkatzeko aukera ematen duela eta batzuek aparkaleku pribatu bezala erabiltzen dituztela ezinduentzat erreserbatutako guneak. Baina, jakina, aparkaleku hauen helburua ez da hori, rotatorioak edo txandakakoak izatea baizik.

Udaltzaingoak ezin du ezer egin halako kasuetan, legeak ez duelako denbora-mugarik ezartzen aparkaleku hauen erabilerari dagokionez. Beraz, hori erregulatzen ez den bitartean, ezin da esan erabilera okerra denik, baina bai desegokia. Beraz, txartelaren titularrei ere zentzuz jokatzeko eskatzen zaie, eta ez edukitzea kotxea egun osoan edo egunetan aparkalekua okupatzen.

EZKONTZETAN

2015-2016 urteetan

Informazio gehiago,

Tel. 943 78 19 56

www.etxeaundi.com

Etxe-Aundi

Musikaren onurak hirugarren adinean



Jose de Azpiazu musika eskolako irakasle diren Arantzazu Bikuña eta Arantxa Iturriozek gidatzen dituzte musika tailerrak

> San Martin egoitzan eta Eguneko Zentroan musika tailerrak jarri dituzte martxan musika eskolako irakasleen eskutik

Musika oso garrantzitsua da Mgure bizitzan. Momentu zailak eramaten lagundu egiten digu, eta abesten dugunean ahaztu egiten ditugu eguneroko kezak eta hobeto sentiarazten gaitu. Gainera, taldean abesten badugu, elkarrenganako komunikazioa eta harremana hobetzen laguntzen du. Onura asko ditu musikak, adin guztietan.

Horregatik, horiek guztiak kontuan hartuz, musika tailerra egiten hasi dira San Martin egoitzan eta Eguneko Zentroan,

musika eskolako Arantzazu Bikuña eta Arantxa Iturrioz irakasleen eskutik. Biak ala biak musikoterapia arloko ikasketak egiten ari dira, eta ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ikusi zuten San Martin egoitzan eta

Eguneko Zentroan. Bertako arduradunek ere begi onez ikusi zuten proposamena, eta, hala, urriaz geroztik ari dira lanean. Egoitzan 12-15 laguneko bi talde dauzkate, eta ordubeteko saioak egiten dituzte astero,

ARANTZAZU BIKUÑA eta ARANTXA ITURRIOZ | Musika tailerreko arduradunak ”

“Helburua da beraiek ondo pasatzea eta, bide batez, memoria, arreta, komunikazioa eta autoestima lantzea, besteak beste”


TABERNA • JAİETXEA
Bidebarrieta 6
Tel: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





txandaka. Eguneko Zentroan talde batekin ari dira, eta astero egiten dute ordubeteko saioa.

Bi hilabete besterik ez dira musika tailerrak hasi zirenetik, baina orain arteko balorazioa oso positiboa da. “Gu oso gustora joaten gara, eta beraiek ere, esaten dutenez behintzat, pozik eta gustora daude. Sarriago etortzeko esaten digute” adierazi digu Arantzazu Bikuñak.

“Eurak gustora egotea da tailerraren helburu nagusia” esan digu Arantxa Iturriozek. “Horrez gain, memoria landu, emozioak eta sentimentuak askatu, autoestimua indartu, eta beraien arteko harremana eta komunikazioa hobetzeko ariketak ere egiten ditugu. Helburua ez da guk soinu jo eta beraiek entzule soil izatea, beste barik”.

Perkusio tresna ezberdinak joz musikaren erritmoari jarraitzen diote. Aukerarik txikiena dutenean, dantza egitea ere asko gustatzen zaie nagusiei.



MUSIKA, OROITZAPEN ITURRI

Saioak oso dinamikoak izaten dira. Kantuan egiteaz gain, bes-telako ariketak ere tartekatzen dituzte, memoria, arreta eta komunikazioa lantzeko. “Pasa den astean, adibidez, Santa Zezilia egunaz hitz egin genuen; zer ospatzen den; familian ba ote duten musikaririk... Aste honetan berriz, Gabon jaietara begira jarri gara, beraien gustuko gabon-kantak gogoratuz” azaldu digu Arantzazuk.

“Perkusio tresnak ere (klabea, triangulua, panderoa, kaja txinatarrak,...) erabiltzen ditugu musikaren erritmoa jarraitzeko. Edo doinu bat ipintzen diegu eta zein instrumentorena den asmatu behar dute. Erlaxazio ariketak ere egiten ditugu, eta

noizbehinka kontrakoa ere bai, hau da, irrintziren bat egiten dugu barrena askatazeko, eta asko gustatzen zaie” esan digu Arantzazuk.

Abestu ere egiten dute, noski. Beraien garaikoak eta beraiek proposatutako kantak izaten dira, eta horiek entzuteak oroitzapenak eta bizipenak gogora ekartzeko aukera ematen die: garai bateko ospakizunak, erromeriak, musikarekin lotutako ohiturak...

Tarteka, dantza pittin bat ere egiten dute, eta oso gustora sentitzen dira.

San Martin egoitzan ikasturte osoan jarraituko dute musika tailerrarekin. Eguneko zentroan, oraingoz, urtarrilera arte, eta orduan egingo dute ebaluazioa, aktibitatearekin jarraitu ala ez erabakitzeko.

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje... garbiketa integrala.
- Lurren kristalizaturua, dekapaturua eta argizari ematea.

Olakua 17 beheko esk. / Tel.: 732 733 713
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

Almaraz
Inmobiliar gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

“Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabiloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei lezaguzu”.

no+vejo

opari txartelak 25€tik

Ilea, nahi duenarentzat!

OLAKUA 1
943716713
onati@nomasvello.com

30€

FOTODUPILAZIOA | IFL GAZTETZEA | AZALEKO GARBIKETAK

www.nomasvello.com

UDALEKO BATZORDEAK



Kirola

Resu Murua (Aloña Mendi), Kepa Zelaia (EH Bildu), Borja Moiuá (EH Bildu) batzordeko burua, Ritxar Fernandez (EAJ), Oskar Carrascal (kirol teknikaria) eta Jabí Balzategi (EAJ)

Igerilekua txiki geratu dela, kiroldegia zaharkituta dagoela... herritar askoren ahotan dabilzan gaiak dira, eta, badirudi, erabakiak hartzeko unera iritsi garela. Udalak, oraingoz, txosten tekniko bat enkargatu du, igerilekua handitzeko eta kiroldegian obrak egiteko dauden aukera eta kostuen inguruan. Udaleko Kirol batzordeko buru den Borja Moiuarekin hitz egin dugu gai honi eta agintaldirako dituen asmoei buruz.

Igerilekuari buruzko txosten tekniko bat enkargatu berri duzue. Zein helbururekin? Noizko egongo da prest eta izango al du eraginik 2016ko aurrekontuetan?

Aspaldian, askotan entzuten ditugu kiroldegian inguruko kontuak; igerilekua txiki geratu dela, gimnasioa ere txikia dela, kiroldegia bera zaharkituta dagoela... Baina ez dakigu igerilekua handitu daitekeen, gimnasioan ezer egin dezakegun, kiroldegian obrarik egin daitekeen... eta gutxiago zein kostu izan ditzazketen egin beharreko lanek. Karta guztiak mahai gainean jarri nahi ditugu eta gero erabakiak hartu; posible da egitea? zenbat balio du?... Behin datu guztiak ditugularik guztion artean (herriari galdetuta) erabaki beharko da merezi duen egi-



BORJA MOIUA
Kirolak
batzordeko burua

“ Oñatik etorkizunean zein kirol instalazio izan beharko dituen zehaztu nahiko genuke agintaldi honetan, denon artean. Helburu potoloa da, baina saiatuko gara

tea edo ez, edo zer egin. Eskatutako aurreproiektua horretarako da, alegia, idea bat egiteko eta horren araberako erantzun bat eman ahal izateko.

Kirol arkitektura arloan espezializatuta dauden Javier Chocarro eta Alfonso Herranz arkitektoei enkargatu diegu lana. Aurrez ere egin izan dute lanen bat gurekin eta konfidantza osoa dugu beraien lantaldean.

45 egunean erantzun bat emango zigula agindu zigun. Berriren bat, laister batean jasoko dugula uste dugu.

Datorren urtera begira ez dugu uste ezertan hasiko garenik. Aurrena herriko behar guztiak aztertu gurako geke, eta gero erabaki zer eta noiz egin.

Igerilekua txiki geratu dela, kiroldegia zaharkituta... Puri-purian dauden gaiak

dira. Zein da zure iritzia? Zer egin beharko litzateke?

Kirol Management-ek egin zuen ikerketak zioen Oñatiko herriak duen igerilekuekin nahiko ur geruza genuela; hau da, berez igerilekua handitzeko beharrik ez dagoela. Dana dala, nik argi daukat ordu batzutan igerilekua topera dagoela. Zer egin dezakegu honen aurrean? Kursilloak gutxitu? Beste herri batzutatako kopurutan ibiltzea ere ez dugu ongi ikusten (Arrasaten adibidez haurrentzat 200 plaza inguru eskeintzen dira, Oñatin 400, ia biztanle erdientzat).

Agindu dugun azterketa ikusitakoan erabakiak hartu beharko ditugu. Posible bada igerilekua handituko nuke, baina ez dugu txapuzarik nahi, egin beharrekoa ondo eginda egon dadila.

Urrutxun atletismo pista egiteko aukera baztertuta daukazue?

Ez. Urrutxu guneko deskontaminazio lanak oraindik bukatu gabe daude eta Udala I hoberekin herremetan dago deskontaminazio pro-

BROJA MOIUA | Kirol batzordeburua



Igerilekua topera dago ordu batzuetan, baina eskaintza murriztea ere ez dugu ondo ikusten; Arrasaten, esaterako, haurrentzako 200 plaza inguru eskaintzen dituzte, eta Oñatin 400

zedura ixteko asmoarekin. Leku interesgarria izan daiteke atletismoaz gain beste kirol jarduera batzuk egiteko ere.

Arrasatek duen bezalako atletismorako instalazio bat behintzat ez genuke aurreikusiko hasiera batean. Gunearen eraikigarritasunari loturiko aukerak argitzen direnean, gure asmoa kirol batzordetik abiatuta aukera ezberdinak jorratzea litzateke, ondoren herritarrekin partekatu ahal izateko.

Larrañako futbol zelaian aldagelak jartzeko asmorik ba al duzue?

Urgain eskolakoekin hitz egingen ari gara eta laister batean aldagela pare bat erabilgarri izango ditugula uste dut. (Eskolak erabiltzen dituen aldagelak erabilgarri jarri nahi ditugu. Inbertsio txiki batekin martxan jartzeko moduan daude; ez dira oso handiak baina futbol 8-ko bi talde hartzeko nahikoa).

Iaz egin zen Kirol Planean 'Eskola Kirola' programa egokitu beharra aipatzen zen, besteak beste. Hasita zaudete horretan, ezta?

Eskola kirolean hutsune batzuk genituen eta horiek hobetzeko eta egokitzapen

horretan gidatzeko Kirol Managment-ekoengana jo genuen. Momentuz, lehen fasean gaude; ikastetxeek, udalak eta Aloña-Mendik Eskola Kiroleko helburuak ezarri ditugu. Egungo eredia aldatu behar dela garbi ikusi dugu 3 aldeek. Bigarren fasean guztiak elkartu eta helburuak bateratzea tokatuko zaigu. Aurrerago etorririko da egungo sistema aztertzea eta posible bada datorren ikasturterako sistema berri bat martxan jartzea da gure asmoa.

Agintaldirako helburuen artean, 3. adineko gizon-emakumeengan jarduera fisikoa sustatzea aipatzen duzue. Ekimen berezirik ildo horretan?

Momentuz ez diogu heldu gai horri, baina gure nagusien ongizateak arduratzen gaitu eta asmatu beharko dugu zerbait beraientzako. Eltzia inguruan parke bat egiteko asmoa daukagu

(korreos inguruko parkearen antzerakoa).

Dena den, kiroldegian egunero ikus genezake 3. adineko jende ugari, eta kirol ohitura onak dituztela agerian dago.

Gainerakoan, zein dira datozen lau urteetarako egitasmo nagusiak?

Gure nahia 4 urte baino urrutirago doa. Oñatik etorkizunean zein instalakuntza izan behar dituen zehaztea nahiko genuke; noruntz joan behar garen jakin behar dugu. Bide hori guztion artean egin behar dugula uste dut, ahalik eta adostasun gehienarekin. Herriak erabaki hortan parte hartzea nahi dugu. Gero beste gauza bat da egitasmo horiek noiz gauzatu ahal izango diren (3 urte barru, 8 urte barru...). Legealdi honetan hori lotzea nahiko helburu potoloa dela iruditzen zait, baina bueno, saiatuko gara.



RITXAR FERNANDEZ / EAJko ordezkaria Kirol batzordean

Igerilekua txiki geratu da, bai. Guk 2-3 kale gehitzea proposatzen dugu

Igerilekua txiki geratu dela, kiroldegia zaharkituta... Zein da EAJren ikuspuntua gai honen inguruan?

Igerilekua txiki geratu da, bai. Aurtan, esaterako, haur asko geratu dira igeriketa ikastaroetatik kanpora, eta guraso askoren kexak jaso ditugu. Igerilekua saturatuta dago eta baldintza horietan inork ezin du "gozatu" bertan. Beraz, gure apustua da 2-3 kale gehitzea igerilekuari; horrekin eta planifikazioa/antolakuntza hobetuta, arazoa konponduta gera liteke.

Kiroldegiaren gainean ere

azterketa sakona egin behar da, sortuz doazen behar berriei erantzun ahal izateko. Ez dugu planteatzen obra "faraonikorik", garai hauetan ezinezkoa delako, baina azterketa egin beharra daukagu, gaurko beharretara egokitu eta etorkizunekoie aurrea hartzeko.

EAJren programan, besteak beste, Urrutxun atletismo pista bat egitea jasotzen da. Egingarria da zuen ustez?

Jakina baietz. Lursaila prest dago eta horrek asko merketzen du kostua. Ez dugu pro-

posatzen luxuzko estadio bat; bakarrik eskatzen dugu teknifikazio entrenamenduak egiteko ekipamendu bat, esparru egoki batean eta pista gogor batekin. Oso lan ona egiten ari diren atletak ditugu, eta uste dugu merezi dutela.

Atletismoaz gain, *running*, *nord-walking*... bezalako aktibitateak egiteko, edo, beste barik, ibili nahi duten pertsonentzako instalazioa litzateke.

Gainerakoan, zein dira EAJren ustez lau urte hauetan landu beharreko gaiak kirol arloan?

Bi ardatz nagusiren inguruan biltzen dira gure proposamenek. 1) Kirol jarduera minoritarioak bultzatzea eta sozializatzea (tenisa, atletismoa, paddlea, osasun-*running*-a...) eta aire librean kirola egiteko (*nordic walking*...) guneak egokitzea San Martin eta Urrutxu bezalako gune naturaletan.

2) Kirol eskaintzaren planifikazioa/antolakuntza/orientazioa hobetzea, Kirol Eskolatik hasita, eta horretarako Kirol Eskolako Teknikari bat kontratatzea proposatzen dugu.

Horrez gain, txirrindularitzaren aldeko apustua egin beharra ikusten dugu, harrobitik hasita. Horretarako *indoor* entrenamenduak egiteko gela bat egokitzea proposatzen dugu, behar bezala ekipatuta.



‘Berdinsarea’ n sartzeko eskaera egingo du Udalak

> Berdintasunerako Gutun Europarra ere bere egin du Udalak

Berdintasunaren aldeko Udalen Sarea da Berdinsarea, eta hainbat helburu ditu, hala nola, gizon eta emakumeen berdintasunerako 2005eko legea beteko dela bermatzea, eta genero indarkeriaren aur-

kako tokian tokiko programak eta ekintzak bultzatzea. Ildo horretan, Oñatiko udalak Berdintasun batzordea sortu zuen aurreko agintaldian, eta Berdintasun Plana ere egin zuen, eta orain urrats bat gehiago eman nahi du Berdinsarean sartuta, beste udal batzuekin modu koordinatuan lan egiteko, eta aholkularitza teknikoa jaso ahal izateko.

Bestalde, udalbatzak Berdintasunerako Gutun Europarra sinatzea adostu zuen aho batez azaroko osoko bilkuran. Ildo horretan, berdintasun esparruko politikari eutsi eta horretarako behar diren baliabide ekonomiko eta humanoak indartzeko konpromisoa berretsi du Udalak, eta berdin emakumeen enpoderamendua bultzatzeko behar diren baliabideak jartzeko ere.

Horrekin batera, indarkeria matxistaren prebentzioan lan egiteko asmoz, tratu onen tailerrak antolatzea adostu dute Udalak eta herriko ikastetxeek. Hala, Urtxintxa aisialdi eskolaren laguntzarekin, gazteen arteko bikote harremanetan tratu txarrak ekidin eta tratu onak bultzatzera zuzendutako tailerrak egingo dituzte herriko hiru ikastetxeetan.

DOKUMENTALA ETA EZTABAIDA



‘INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN FEMINISTAK MARTXAN’

Abenduaren 9an, 19:00, erabilera anitzeko gelan (Bidebarrieta 18, euskaltegiaren ondoan

ALOÑA-URBIA-OLTZAKO larreratze kanpaina

Aloña-Urbia-Oltzan ganadua larreratzen duten abeltzainak abenduaren 31a baino lehen udal bulegoetatik pasa behar-ko dira ondorengo datuak agertuz: 1.- Nekazaritza ustia- ketaren titularraren datuak; 2.- Larreratu asmo duten abel- buru kopurua; 3.- Erabiltzen dituzten herri lurretako txabolak; 4.- Ordainketa helbi- deratzeko kontu korrante zen- bakia. Epe hori igaro ondoren ez da baimenik emango.

Bide batez, Artia-Txirikila- leku-Aitzgain aldera ganadua bildatzen dutenen zerrenda ere egingo da, nahiz eta hauek ez duten tasarik ordaindu behar.

Bestalde, Udalak eta Aloabel elkarteak programatu duten auzolanean parte hartzen duten ganaduzaleek %100eko hobarria izango dute tasetan.

Oñatiko Bake Epailea aukeratzeko deialdia

Hurrengo lau urteetan Oñatiko Bake Epailea eta bere ordezkoa izango direnak hautatzeko deialdia egin du Udalak. Izangaiek bete beharreko baldintzak hauek dira: 18 urtetik gorakoa izatea eta Espainiako nazionalitatea edukitzea; dolu izaerako delitu batean prozesatua ez izatea, absoluzioa lortutakoa izan ezik; eta elkarte autonomoko bi hizkuntza ofizialetan euskaraz eta gazteleraz, idatziz zein ahoz lan egiteko gai dela kreditatzea.

Ezingo dute Bake Epaile kargua bete lanean diharduten abokatu eta prokuradoreek, eta kargu politikoko edo sindakalen bat dutenek, ez eta administrazioko funtzionarioek eta aholkularitza juridiko lanetan dihardutenek ere.

Hautaketa prozesuan honakoak baloratuko dira: Zuzenbide ikasketak edukitzea eta langabezian egotea. Horrez gain, elkarrizketa pertsonala edo idatzizko azterketa egingo da Bake Epaile karguak daramatzan funtzio eta betebeharren inguruan. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu ondoren 20 laneguneko epea egongo da instantziak udal bulegoetan aurkezteko.

Euskaldunberrien ahalegina nabarmendu du Udalak

Euskararen Egunaren harira gure hizkuntzaren aldeko adierazpena onartu du udalbatzak aho batez. Udalerrri euskaldunak euskararen arnasguneak direla dio testuak, eta hizkuntzaren transmisioan duten garrantzia azpimarratzen du. Aurten, gainera, bereziki aitortu eta eskertu nahi da euskaldunberriek egiten duten ahalegina eta, ildo horretan, euskara ikasteko erraztasunak emateko konpromisoa hartzen du Udalak, euskararen ezagutzan ematen ari den jeitsiera kezkarriari aurre egiteko. Halaber Oñatiko udalak, udalerrri euskalduna izanik, euskaraz bizitzen segitzeko borondatea berretsi du. Bestalde, EAJk egindako proposamena aintzat hartuz, herriko plaza, lorategi edo aretoaren bati EUSKALDUN BERRIA izena jartzea onartu du udalbatzak.

Aldaketak gazteen lokalen ordenantzari

Udalak irailean hasiera bateko izaeraz onartu zuen gazte lokalen ordenantzari hainbat zuzenketa egin dizkio. Hala, aseguro-polizari dagokionez, ordainagiria urtero aurkeztu beharko dela esaten da.

Bestalde, bi lokalen arteko distantzia gutxienik 20 m.-koa izan beharko dela zehazten da. Ildo berean, zehaztu egiten da Kale Zaharreko oinezkoen gunera ematen duten fatxadetan (Lizaur kaleko 6 zenbakia barne) ezingo dela gazte lokalik zabaldu.

Segurtasunari dagokionez, butano bonbonak edo antzekoak erabiltzea debekatuta egongo da. Eta zarata mailari dagokionez, zehaztu egiten da egunez (7:00-23:00) eta gauez (23:00-7:00) onartuko den gehienezko dezibelio maila.

Udalak berriro jarriko du ordenantza jendeagirian 30 egunez, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

SAN MARTIN GUNEAN bukatutako eraikinean, azken **GARAJEAK eta ETXEBIZITZAK** **SALGAI**
2 eta 3 logela
177.259€ -tik

MOJASORO S.L. Informazioa: 689 420 761 Eraikitzailea: Egaralur www.egaralur.net

OÑATIKO VIII. ERAKUSLEHIO LEHIAKETA

> **Gabonetako VIII. Eskaparate Lehiaketa antolatu du Udalak TXANDA elkartearekin batera.**

Ohi bezala, epaimahaiak erabakitako bost erakusleho politenak sarituko dira (1500, 1000, 500, 300 eta 200 txantxi hurrenez hurren). Horrez gain, berritasun moduan, Txantxi monetaren presentzia ongien nabarmentzen duenarentzako 500 txantxiko sari berezia egongo da. Eta urtero bezala, herritarren botoz aukeratutako eskaparateak ere 500 txantxiko saria jasoko du.

Hemen dituzue botoa emateko txartelak.



OÑATIKO VIII. ESKAPARATE LEHIAKETA HERRITARREK HAUTATZEKO ORRIA

NIRE BOTOA eskaparate honi ematen diot:

IZEN KOMERTZIALA: _____

NIRE IZEN-ABIZENAK: _____

TELEFONOA: _____

Goiko datuak bete ondoren, moztu eta eraman orri hau abenduaren 17a baino lehen honako leku hauetako batera: Oñatiko Udala (harrera bulegoa), Turismo Bulegoa edo Udal Sozioekonomia zerbitzua (Bidebarrieta 12-Behea)

**ZOKETA: Botoa ematen duten herritarren artean
200 TXANTXIKO SARIA zozketatuko da**

.....
Sinadura

OÑATIKO VIII. ESKAPARATE LEHIAKETA HERRITARREK HAUTATZEKO ORRIA

NIRE BOTOA eskaparate honi ematen diot:

IZEN KOMERTZIALA: _____

NIRE IZEN-ABIZENAK: _____


TELEFONOA: _____

Goiko datuak bete ondoren, moztu eta eraman orri hau abenduaren 17a baino lehen honako leku hauetako batera: Oñatiko Udala (harrera bulegoa), Turismo Bulegoa edo Udal Sozioekonomia zerbitzua (Bidebarrieta 12-Behea)

**ZOKETA: Botoa ematen duten herritarren artean
200 TXANTXIKO SARIA zozketatuko da**

.....
Sinadura

OÑATIKO ARTISAUEN GABONETAKO AZOKA abenduak 12



Abenduaren 12an, goiz osoan zehar herriko artisauen azoka egingo da Foruen enparantzan. Bitxiak, panpinak, estanpatuak, xaboi eta kremak, zeramika... Herriko 13 artistek beren lana erakutsi eta salgai jarriko dute. Aukera ederra Gabonetako opariak erosteko.

ARGAZKI ERRALDOIA

presoei elkartasuna adierazteko



Gabon jaiak gainean ditugun honetan, presoak eta iheslariak gogoratzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu ERNAI gazte erakundeak. Alde batetik, beraien eskubideak aldarrikatzeko urtarrilaren 9an Bilbon eta Baionan egingo diren manifestazioetan parte hartzeko deia luzatu dute.

Baina manifestazioetara joateaz gain, presoan auzia konpontzeko eta etxean ahalik eta azkarren egon daitezela, egunerokoan konpromisoak hartu behar ditugula uste du Ernaik. Horregatik, Oñatiko gazteei zuzendutako hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Alde batetik, argazki erraldoi bat atera nahi dute Oñatiko presoei helarazteko. Abenduaren 12an aterako dute argazki, Ona tabernako plazatxoan, 19:30etan. Oñatiko gazteen elkartasuna eta indar osoa presoengana heltzeko ahalik eta gazte gehien egotea nahi dute. "Presoen auzia konpontzeko gazte guztion konpromezua ezinbestekoa delako, lotu borrokari" adierazi du Ernaik.

Alakanteko Villena espetxera martxa

ABENDUAK 19

Espetxeetara elkartasuna zuzenean eramateko asmoz Alakanteko Villena espetxera martxa antolatu du Ernaik abenduaren 19rako. Joseba Arregi herrikidea dago bertan preso. Espetxe inguruan hainbat ekimen egingo dira, kontzertua, txalaparta, bertsoak... Animatu beraz! Izena emateko tokiak Arrano, Boga, Ona eta Ongi izango dira, abenduaren 16 baino lehen.

HITZALDIA

'Testamentu eta heredentziak'

Zer aldatu da Zuzenbide Zibileko lege berriarekin? Aldatu al dezaket lehendik egindako testamentua? Nola?... Galdera eta kezka hauek argitzeko hitzaldia emango du Javier Perez abokatuak Pake Lekun abenduaren 15ean, 17:30

'Haur guztientzako jostailu berriak' kanpaina antolatu du Gurutze Gorriak

Jostailuak beharrezkoak dira haurren garapenerako, baina, tamalez, gaur egun eskubide hau ez dago haur guztien esku. Horregatik, Gabonak iristear dauden honetan, bailarako haur guztiek jostailu berri bat izan dezaten, elkartasun kanpaina jarri du abian Gurutze Gorriak Oinaztu aisialdi taldearekin batera.

Hala, abenduaren 12an eta 19an Oñatiko plazan egingo diren azoka berezietan (artisauek azoka eta GKE-ONGena) Oinaztu taldekoek 'Jostailu txeeak' salduko dituzte 5, 10 edo 20 euroren truke, eta diru horrekin jostailuak erosiko dituzte. Edo nahi izanez gero, egun horietan plazan jarriko duten mahaira eraman daitezke jostailuak.

Bestela, abenduaren 16 eta 18an Oinaztu taldeko kideak Eltzian (ETEO zaharra) egongo dira, eta bertara ere eraman daitezke jostailuak. Kanpainan parte hartzeko beste aukera bat da Gurutze Gorriak *La Caixa* eta *Laboral Kutxan* dituen kon-tuetan diru-ekarpena eginez 'Jostailu kanpaina' kontzeptua erabiliz.

Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Azaleko argazkia: Felix Sanchez

GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefona bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Jaurlaritzaren txostenari kritika

Ander Lizarralde

Eusko Jaurlaritzak 2015eko uztailean, herriz herri “Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketaren argazkia, 1960-2010” txostena argitaratu zuen. Azaroan gaztetxean txosten horren irakurketa kritikoa egin dugu eta atera ditugun ondorio batzuk azalduko ditugu:

1) “Bizitzeko eskubidearen aurkako urraketaren argazkia” zergatik hasten da 1960an eta zergatik ez, adibidez 1936an edo 1934an?

2) Txostenak hutsune nabarmenak ditu. Batzuk aipatzearen: Eustakio Mendizabal, Fran Aldanondo, Alvarez Peña, Jokin Leunda, Xabier Karpasoro, Gurutze Iantzi ... tiroketetan, torturapean, kartzeletan, kotxe istripuetan ... hildakoak ez dira agertzen. Eta hori ez da despiste baten ondorioz egin. Euskal memoria fundazioak 2010an gatazkaren ondorioz hildako 474 pertsonako zerrenda bat osatu zuen errepide kontroletan, manifestazioetan, torturapean, espetxean ... hildako euskal herritarrekin osatuta. Jaurlaritzak ez dio kasurik egin zerrenda horri

Oñatiri dagokionez ez ditu kontuan hartu Miren Zumalde eta Natividad Junco oñatiarrak 1969 eta 2007an presoiei bisitatzeraz jazoazela errepide istripuz hilak. Angel Fernandez oñatiarraren kasua ere ez dute kontuan hartu, 1983an lehegailu batek eztanda egitean hil zena

3) Txostenak Susana Arregi ez du biktimatza hartu, baizik eta “ikerketa

eta argitze lan handiagoa” eskatzen duen kasu bezala sailkatu dute. Guardia zibilak tiroz hil zuela zalantzan jartzen du horrela Jaurlaritzak

4) Biolentziaren adar bakarra hartzen du kontuan txostenak: bizitza eskubidearen urraketaren adarra. Fokua hor jarrita biolentziaren beste adar batzuk, oso ugariak izan direnak Euskal Herrian, ahazteko saiakera interesatua egiten du Jaurlaritzak: torturak (polizia, guardia zibil eta ertzaintzarenak), 10.000 kasu ingurutan zenbatu direnak; manifestazioetako pilotakada eta jipoiak, espetxeetako tratua (isolamendua, katxeoak, palizak, umillazioak, dispersioa, zigorren luzapen amaigabea) borroka armatuan ibili gabeko jendearen atxiloketak (gazte erakundeak, erakunde politikoak, presoen aldeko taldeak, kazetariak ...)

Eta guzti hori zigorgabetasun edo impunitaterik handienarekin. PP, PSOE eta PNV-k inplikazio zuzenak dituzte Euskal Herrian eman diren ehundaka biolentzia kasutan. Baina zigorgabetasuna erabatekoa da.

5) Azkenik txostenak aipatzen du honako helburua izan duela: “Erretratu hauen helburu nagusia hauxe da: Euskadiko udalei beren herri-hiriei buruzko ahalik eta informazio gehiena ematea, horren bidez oroitzapenezko ekintzak eta biktimen aitortza sustatzen laguntzeko”. Hori esatea ondo dago, baina badakigu Euskal Herria zentsurapean dagoela oraindik eta errelatu desberdinak egiteko askatasunik ez dagoela. Gogoratu dezagun bestela zer gertatu den udan Otxandion. 1987an Lutxi Urigoiti otxandiotarra hil zuen

guardia zibilak Pasaian. Uda honetan bera oroitzeko ekitaldi bat antolatu zuten Otxandion. Ondorioz lau lagun atxilotu zituzten “terrorismoa goratzea” egotzita. Fernandez Diaz-ek “biktimen umiliatze delitua” egin zuten lau lagun Justiziaren esku jarri zituztela esan zuen. Hemen errelatu bakarra baimentzen da. Besteak zentsurapean jarraitzen du

Jaurlaritzak hutsune asko dituen txostena osatu du. Ez kasu batzuk ahaztu zaizkiolako, baizik eta kontuan ez hartzea erabaki duelako.

Aurrera Kortxoenea! Aurrera Gaztetxeak!

Ane Castaño Zabarte, Antixenako Gaztetxearen izenean

2005eko azaroaren 8a: poliziak, bortizki, herriari bizitza sozial eta kulturala eman zion Kasablankako gaztetxetxea eraitsi zuen Oñatin.

-2015eko azaroaren 2a: poliziak, bortizki, herriari bizitza sozial eta kulturala eman zion Kortxoenea gaztetxetxea eraitsi zuen Donostian.

-2012ko irailaren 5a: Oñatiko gazteek, ordura arte jasandako eraso eta oztopoei aurre egin eta Antixeneko eraikina okupatu zuten gaztetxe berri bat martxan jarri eta Kasablankako eraikinari erreleboa hartuz. Eta badoaz hiru urte jada!

Kortxoenean jasandako erasoaren aurrean, Donostiako gazteei elkartasun beroena adierazi nahi diegu Antixeneko gaztetxetik. Bide berdina jarrai dezaten eta lehenbailehen gaztetxe berri batetaz gozatu dezaten!!

Mendi irteera

Aurrekomendira

Julen Astigarraga, Unai Bikuña eta Aimar Uribesalgo

Ez da lehen aldia mendi irteera tematiko bat antolatu duguna. Oraingo honetan Aurrekomendira joan eta bertako txoko ezberdinak bisitatuko ditugu: Antzuelas Goitia, eskola zaharra, Lizargarate, Askazubiko lehengo tresnen erakusketa, etab. Bidetan gauza askoren inguruan jardungo dugu: bitxikeria faunistiko eta etnografikoak, antxiñako kotilleo lokalak, baserriaren iragana-oraina-etorkizuna, nekazaritzaren sorrera, basoen bilakaera, txantxikuen biologia, etab. Pixka bat izerditu eta beste pixka bat ez; apur bat eztabaidatu eta beste apur bat be bai; neguaren hasieraz gozatu eta bazkaltzera epeletara etxera.

Abenduaren 28an, astelehena, izango da txangoa, eta goizeko 08:30tan plazatik irtengo gara oinez. Norberak bere 11etakoa ekarri dezala. Eguraldi txarra izatekotan begiratu badaezpada gaztetxeko facebookean, zerbait aldatu ote den ikusteko. Zahar, nerabe zein txakur, guztiok zaudete gonbidatuta.

Ohar eta deialdiak

JOSTAILU-TRUKE AZOKA ABENDUAREN 12AN

Gabonak datozela eta, Jostailu-Truke azoka antolatu du Txaloka ludotekak. Jostailuen berrerabilpena sustatu, kontsumismoa murriztu, elkartasuna bultzatu eta jostailuei bigarren aukera ematea da helburua, besteak beste.

Azoka abenduaren 12an egingo da eta, dagoeneko, jostailuak batzen hasita dauden ludotekan. Horretarako azken eguna abenduaren 9a izango da (16:45-19:45). Bertara eramaten den jostailu bakoitzaren truke txartel bat jasoko du haurrak eta, azoka egunean beste jostailu bategatik aldatu ahal izango du.

GABON GAUEKO ELKARTASUN AFARIA

Lagun Leku elkarteak elkartasun afaria antolatu du abenduaren 24rako. Gabon gauean konpañia nahi duen orok eman dezake izena.

POSTA BIDEZKO BOTOA

Abenduaren 20ko hauteskunde orokorrei begira, posta bidezko botoak tramitatzeko zerbitzua jarri du EH Bilduk. Abenduaren 7, 9 eta 10ean dira azken egunak, Bidebarrietako Erabilera Anitzeko Gelan 11:00-13:00 eta 18:00-20:00. Oñatiko EAJk ere zerbitzu bera eskaintzen du batzokian, astelehenetik ostiralera 11:30-12:30 eta 18:00-19:00.

BISITA BEREZIAK ARRIKRUTZEN

Abenduaren 12an Arrikruzteko eszentrika ikusteko bisita berezia egingo da (18 urtetik gorakoentzat), eta hilaren 27an gaztetxoei (6 urtetik gora) zuzendutako Espeleotxiki irteera egingo da. Erreserbak egiteko deitu, 943082000.

📷 HILEKO IRUDIA

Argazkia: Natxo Santos



MOVEMBER OÑATI Gizonen gaixotasunen kontzientziazioa zabaldu nahian, herritar ugari ibili da biboteaz Oñatin azaroko hilean zehar.

GAIXOTASUNAK ETA GIZARTE PATOLOGIAK

Zer da osasuna? Zer da osasuna Brasileko laborari indigena batentzat? Eta Bilboko San Frantzisko auzoan bigarren eskuko arropa eta bizikleta vintageak saltzen dituen gazte gentrifikuarentzat, zer da osasuna? Zer, Hong Kong hiriko laino beltzetik babesteko maskarilak produzitzen lan egiten duen nerabe gizagaixoarentzat? Eta zer iraitzentzat, zeinaren gurasoek umea izan berritan herri osoari jakinarazi zioten "Mutila da eta osasuntsua". Zer da Oñatiko kuartela okupatzen bizi den Guardia Zibilarentzat? Eta zer cis-gizonezko Euskal Preso politikoarentzat? Zer da osasuna 2015ean, bizitzan lehengo, bere herriko jolasgune publiko batean jostatu daitekeen gaztetxoarentzat? Kanadan bizi den Riaz Sayani- Mulji Afganistango errefuxiatuarentzat, zer da osasuna? Eta herrial-

Jone Arrazola



de berdinean jaio, hazi eta hezi den Moarentzat? Zer da osasuna hilerokoa jaitsi arte benetako emakumea ez dela ikasita, etorkizunean jantziko dituen zapiak kolezionatzen hasia den neskatila musulmanarentzat? 40.hamarkadan Rutland-en (AEB) "Freak Show" erakuslehioetan gorputz "natural", de facto, desiragarrien trufarako, agertarazten zituzten emakumebizardunentzat, zer zen osasuntsua izatea? Eta egun Amsterdameko "Red Light Street"-eko erakuslehioetan beharrez diharduen putarentzat, zer da osasuna? Eta karrika hau pausu azkarrean eta harridura-nazka-pena aurpegian iltzaturik igarotzen duten turistentzat? Eta urte bat bata/gorputz zuridun gizonen/zientziaren diagnostiko eta tratamenduak jaso ostean bularra galdu duen emakumearentzat? Zer

da osasuna Mo-a maite duelako Mo-Sista bilakatzeko denarentzat?

Zer da hauetako bakoitzarentzat kantzerra, buru-osasuna, funtzionalitatea, emakumea, gizona, zapi larrosa eta bibote hiperboliko bat?

Egun, mendebaldeko kultura "demokratiko" eta "inklusiboetan" gorputz-identitate ez-normatiboen aurkako diskriminazioak debekuan baino inbizibilizazioan, infantilizazioan, patologizazioan eta sistema sexista-arrazistaklasista eta kapitalistaren asimilazioan datza. Hau da, botere posizioetatik ez direla hauen ahotsak entzuten eta entzunarazten, boluntate onez beteriko kanpaina filantropikoen bidez isilarazten edo/eta hauen orde hitz egiten baizik. Gaixotasun guztiak ez, baina gutxienez gizarteak sortutakoekin amaitzea gure boluntatearen esku dagoelako, galdetzen dut.



EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna da. Halaxe da 1949. urtean Eusko Ikaskuntzak ezarri zuenetik eta 1995. urtean Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak instituzionalizatu zutenetik. Horren harira, ba al dakigu euskarak Frantzisko Xabierkoa santu nafarrari zor diola eguna; hain zuzen, 1552ko abenduaren 3an hil zen, eta euskaraz, haren ama-hizkuntzan, esan omen zituen azkenengo berbak hil-zorian.

Egunari antza emateko, ekitaldi ugari antolatuta dira gure herrian: egongo dira jolasak, tailerrak eta herri-kirolak, kantuan egongo da, hartuko da txokolata

Amaia Erostarbe

EAJko zinegotzia



bizkotxoekin, egingo da afari-tertua, egingo dira euskal musikarekin girotutako spinning-saioak... Zergatik, Jamil? antzerki-lana ere ikusiko da. Jendartearen egiteko ospakizunak dira denak, jai-giroan bizi izatekoak, eta udalak eta ikastetxeek arretaz eraturakoak.

Hala ere, nik haratago joan gura dut, eta zera proposatu oñatiarrei: nor bere baitara bildu dadila, barneko ahotsa baliatu dezala eta egin dezala gogoeta. Egiten dut euskaraz? Ez dut egiten? Umeekin egiten dut bakarrik? Norekin egiten dut? Norekin ez dut egiten? Non egiten dut?... Euskara ikasten dihar-

duenarekin edo ikasi duenarekin (ume / heldu), zein da nire jarrera? Nola sozializatzen dut euskara euskaldun berriei? Laguntzen ditut ahalegin horretan?

Ezin amaitu esan gabe euskaldun berri helduak ekarri dituela gogora Eudelek aurtengo Euskararen Nazioarteko Egunerako adierazpenean; aitormena egin die jendaurrean, eta omendu du haien gogoa, kemena eta ahalegina. Hala, EUSKALDUN BERRIA izena jartzea proposatu du udalerriko kale, plaza, lorategi, iturri, areto edo gune batean. Inguru hurbilean ditudan oñatiar euskaldun berriei egin nahi diet nik aitortza, eta haien izena ekarri dut gogora: Claritza, Eva, German, Jesus, Jorge, Joxe, Mohamed, Tihago, Txema, Pedro, Wednesday... Bejondeiela!

OÑATIARRAK MUNDUAN



eta MUNDUA OÑATIN



Izena: Joseba Agirre
Adina: 36 urte
Eslovakia



Urtarrilean beteko dira hamar urte Joseba Eslovakiara joan zenetik. Lan kontuek eraman zuten hara. Konkretuki, Fagor Ederlan-ek bertan erosi zuen lantegia aurrera ateratzeko helburuarekin joan zen, bost urterako, hasiera batean, baina urteak aurrera doaz eta bertan jarraitzen du oraindik.


Fagor Ederlan-ek *Ziar Nad Hronom* herrian duaukan lantegiko zuzendaria da. Automoziorako aluminiozko piezak egiten dituzte, lozagi edo embrageak, transmisio katerrak eta motorretarako piezak batik-bat.

Bizi, *Banská Bystrika* hirian bizi da, Eslovakia erdialdean. Izen bereko eskualdeko hiriburua da, 80.000 biztanle ingururekin, *Hron* ibaiaren ertzean eraikia. Oso hiri polita omen da, bai hirigunea bera, eta baita inguratzen duten mendiak ere. "Natura gustatuz gero, aukera asko ematen ditu; bizikletan ibiltzeko edo korrika egiteko leku zoragarriak ditu, eta neguan eski modalitate guztietan (fondoak, trabesia, alpinoa) aritzeko aukera dago". Hori bai, negua gogorra egiten omen da, eguraldi hotzagatik eta oso goiz iluntzen duelako.

Ekonomikoki asko aurreratu omen du Eslovakiak Europar Batasunean sartu zenetik (2004). Ongizate maila goraka doa, baina oraindik asko falta omen zaio gure bailarako mailara iristeko. "Askotan ez gara konturatzen zein ondo bizi garen". Turismoa egiteko leku polita omen da. Gainera, Praga, Viena, Krakovia eta Budapest hiriak bertatik oso hurbil daude.



Izena: Diego Teixidó
Adina: 44 urte
Argentinarra



Buenos Aires hirikoa sortzez, 2003an iritsi zen Diego Oñatira, bizimodu lasaiago baten bila, Corralitoak eragindako giro ezegonkor eta arriskutsutik ihesi. "Nire anaia txikia aurrez Oñatin egona zen, eta berak gomendatuta etorri nintzen, probatzearren. Ostalaritzan hasi nintzen lanean, eta sei hilabete ondoren, emaztea eta bi seme-alabak etorri ziren, 6 eta 5 urtekoak. Berehala konturatu ginen leku ederra zela bizitzeko (jendea, ingurunea, ekonomia...) eta bizimodua aurrera ateratzeko ahalegina egitea erabaki genuen".

Oñatiarrak pertsona itxiak zirela entzuna zuen Diegok, baina goitik behera gezurtatu nahi du topikoa. "Guk geuk behintzat ez dugu izan inolako arazorik Oñatin integratzeko, eta oso gustora gaude. Edozein lekutara zoazela zeure aldetik jarri behar duzu bertan integratzeko". Diego futbolzale amorratua da, eta entrenatzaile lanetan laguntzen dio Aloña Mendiri.

Ostalaritzan hiru bat urtez aritu ostean, Fagor eta Patricio Etxeberria enpresetan ere aritu zen lanean, baina lanpostu finkoa lortzea oso zaila zela ikusita, 2008an bere enpresa propioa ('Argitagarbi') sortzea erabaki zuen emaztearekin batera, garbiketa lanen arloan. Elkarteak, garajeak, behebarruak eta lokalak garbitzen dituzte; obra amaierako garbiketak ere egiten dituzte, eta baita zoruen tratamenduak ere. Oraingoz ondo doakie eta, dagoeneko, 5 laguneko lan-taldea dute. Beraien etorkizuna Oñatin dagoela dio.

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS

URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



“Odola 80 aldiz ematera iritsi nahi nuke, osasunak laguntzen badit”

‘Emaile Bikaina’ agirria jaso du

Deba Arroko odol emaleen urteko jaia ospatu zen urriaren 24an Eibarren, eta bertan jaso zuen Maribi Igartuak ‘Emaile Bikaina’ agirria, odola 61 aldiz baino gehiago eman izanaren errekonozimendu gisa. Maribirekin batera, Oñatiko beste hamaika odol emalek zilarrezko domina jaso zuten, 25 emanalditara iritsi direlako, eta beste hiru emakumezko eta bost gizonezko urtzko domina jaso zuten, odola 40 eta 50 aldiz eman izana eskertuz.

Noiz hasi zinen odola ematen eta zergatik?

1990eko urtarrilean eman nuen aurreneko aldiz. Nire senarra lehenagotik zen emalea, eta odola ematera joaten zen aldiro esaten nion “hurrengoan zurekin noa, hurrengoan bai...”. Kosta egin zitzaidan pittin bat hasierako pausu hori ematea, baina hasi nintzenetik nahiko konstantea izan naiz.

Urtean zenbat aldiz ematen duzu?

Emakumeok urtean hiru aldiz eman dezakegu gehienez (gizonezkoek lautan), eta urte guzti hauetan bi edo hiru aldiz eman dut urtero.

Batzuei beldurra ematen die orratzak. Zer esango zenieke? Mingarria al da?

Lehenengo ziztadak bai ematen du min pittin bat, odol-analisi

normal bateko orratza baino pittin bat sendoagoa delako, baina hortik aurrera ez zara konturatu ere egiten. Hamarhamabost minutuko kontua izaten da odola ematea, eta nik neuk behintzat, ez dut sekula arazorik izan.

Bazkalduta joatea komeni da, eta aurrez kirola egin barik, ordubete lehenago behintzat. Amaieran, jatekoa eta edatekoa egoten da indarberritzeko.

Odol emaleek behera egin dute azken aldian, eta jende gaztea ez omen da animatzen. Zer esango zenieke?

Gaur gaurkoz, oraindik, odola ez dela fabrikatzen, eta gure esku dagoela behar adina odol egotea ospitaleetako premiei erantzuteko.

Azken batean, ez da beste munduko ezer. Ordubete edo ordu eta erdi “galdu” behar

duzula odola emateko (txandan egon, medikuarekin hitz egin, odola eman eta zerbait jan); baina hiru hilean behin izateko, ez dut uste asko denik.

Nire seme gazteena hasi da odola ematen eta bestea ere hastekoa da. Beraz, animatu egiten ditut herriko gazteak odola ematera.

‘Emaile Bikaina’ saria jaso duzu odol emaleen urteko festan. Zer sentitu duzu?

Poza. Zure borondatez egiten duzun zerbait da eta, bai, ilusioa egiten du halako aitortza edo errekonozimendua jasotzeak.

Odola ematen jarraituko al duzu?

Bai. Aurten ere hirutan izan naiz eta, dagoeneko, 63 aldiz eman dut. Osasunak laguntzen badit, 80 aldiz ematera iritsi nahi nuke. Ilusio hori daukat.

“
Gaur gaurkoz,
oraindik,
odola ez da
fabrikatzen, eta
gure esku dago
behar adina odol
egotea
ospitaleetako
premiei
erantzuteko



caravanas **Oñate**




• GALBARAGINTZA - CALDERERIA
Oñateko zuzendaria, 25 • Tel: 943 71 63 60
www.caravanasoonate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oñateko zuzendaria, 25 • Tel: 943 78 05 65
Atzeko kalea, 32 (erakusketak)

ZUAZOLA-LARRAÑA BHI

LANGILEENTZAT HOBETSITAKO IKASTAROAK



Fabrikazio arloa:

Mekanizazioa tornu eta fresatze-makinan

CNC programazioa

Soldadura, estalitako elektrodoekin

Muntaia eta mantentze-lan arloa:

Muntaia eta mantentze-lan mekanikoa

Automatismo elektrikoak

Automatismo pneumatikoak eta hidraulikoak

Automatismo elektropneumatikoak eta elektrohidraulikoak

Informatika arloa:

Oinarrizko informatika

Ordenagailu bitartezko marrazketa (CAD). 2D

Ordenagailu bitartezko marrazketa (CAD) 3D

IZEN-EMATEA IREKITA!!!!



San Lorentzo z/g • 20560 Oñati
☎ 943 78 21 50
www.onati.net





1985 urteko igeriketa taldea

Aloña Mendiko Igeriketa sailak

30 urte bete ditu

Aloña Mendiko igeriketa saila zorioneko dago, 30 urte bete baititu. Eta horri buruz hitz egiteko Xabier Infanterekin izan gara, bera izan baita sorrera beretik herriko igerilarien prestatzailea.

Nola sortu zen Aloña Mendiko igeriketa saila?

Zubikoa kiroldegia 1985eko uztailaren 1ean inauguratu zen, eta urte hartako San Migel jaientan herri mailako txapelketa bat antolatu genuen. Parte hartzea nahiko ona izan zen, eta orduantxe erabaki genuen, guraso batzuekin batera, igeriketa talde bat sortzea Aloña Mendiren barruan.

Orduz geroztik entrenatzaile lanetan ikusi zaitugu beti, baina aurretik konpetitzen ere ibili zinen, ezta?

Gasteizko Judizmendi taldean ibili nintzen gaztetan. Euskal Herriko txapelduna izan nintzen, eta Espainiako txapelke-



XABIER INFANTE 'ARTZA'

Igeriketa saileko entrenatzailea

Daukazu mugak kontuan hartuta, uste dut lan nahiko ona egiten dugula, bai Aloña Mendin eta baita ikastaroetan ere

tara ere lau aldiz joan nintzen, eta Infantil mailan Espainiako 3.a izan nintzen bular estiloan.

30 urte hauetan Aloña Mendiko igerilari ugari lortu dute Espainiako txapelketara joatea, baina bakarrak podiumera igotzea.

Unai Pedregalek lortu zuen zilarrezko domina birritan, gazte mailan. Unai gurekin hasi zen eta gero Izarrako errendimendu zentroan ibili zen hiru urtez.

Amaia Andueza, Patxi

Romero, Ibon eta Kepa Alberdi, Unai Vazquez, Ane Sanz de Galdeano, Ander Zarketa, Xabier Urbina, Josune Odriozola, Nerea Diaz eta Eric Ugarte ere sailkatu izan dira Espainiako txapelketarako. Unai eta Ane finalean ere sartu ziren, baina dominak lortzea oso oso zaila da gure baldintzetan. Beste klub batzuetan goizez eta arratsaldean entrenatzen dute, eta baita asteburuetan ere. Hemen ezinezkoa da. Hemen goizeko 6etan entrenatu behar dugu, eta uste dut nahiko lan txukuna egiten dugula.

Dena den, garbi utzi nahi nuke niretako berdin berdinak direla Espainiako txapelketara iristen direnak eta Gipuzkoa mailan konpetitzen dutenak; tratu eta exigentzia maila bera daukat guztiekiko. Inportanteena, nire ustez, talde giro ona sortzea da, eta hori lortuz gero, etortzen dira emaitzak.

Gaur egun zer moduz dago Igeriketa saila?

Nahiko ondo. Igerilari ugari daukagu, eta jendea gustora dabil. Goizeko 6etan 50 lagun etortzen dira entrenatzera eta hori lorpen handia da. Eskola Kirolekoak kontuan hartuta, danera 145 igerilari daukagu, eta emaitzei begiratu, Gipuzkoa mailan bosgarren edo seigarren kluba izango gara.

30 urte hauetan asko aldatu al da igeriketa saila?

Nik uste dut teknifikazio mailan hobetu dugula esperientziarekin. Lehen planifikazio berezirik gabeko entrenamendu saioak egiten genituen, eta gaur egun, metro askoz gutxiago eginda emaitza hobekak lortzen ditugu.

Bestalde, azpimarratu nahi nuke, Iñaki Guridi edo Ander Zarketa bezalako igerilari beterranoek klubean jarraitzen dutela, eta hori oso inportantea da, eredu edo erreferentzia direlako gazteentzako, bai igerilekuan eta baita aldagelan ere, eta giro ona sortzen dutelako.

“Goizeko 6etatik egiten ditugu entrenamenduak. Ez dago beste aukerarik. Gogorra da, bai, baina beraien borondatez etorzen dira



Goizeko 6etan entrenatzen duzue egunero. Gogorra, ezta? Goizeko 6etan sartzen gara uretan eta 7,30ak arte egiten ditugu entrenamenduak. Ez dago beste aukerarik. Arratsaldetan beteta egoten da igerilekua ikastaroekin, eta ezinezkoa da 50 lagun sartzea. Gogorra da, bai, goizeko 6etan etortzea, baina beraien borondatez etortzen dira. Hori onartuta dago.

Asko hitzegiten da azken aldian igerilekuari buruz. Txiki geratu dela... Zein da zure iritzia? Urteetan egindako lanari esker Oñatin ohitura handia dago igerilekura etortzeko. Asteburuetan ere ohikoa da familiak piszinara etortzen ikustea, eta hori ez da beste herri askotan gertatzen.

Nik garbi daukat igerilekua txiki geratu dela eta irtenbide

30. urteurrena
Abenduaren 12an
ospatuko dute
lagun arteko
konpetizioa eta
afari batekin

bat eman behar zaiola. Baina igerilekua ez ezik, kiroldegia bera geratu da txiki; eskubaloi-koak estu dabilta, saskibaloi-koak ere bai... Ez da gai erraza. Beraz, serio eta sakon aztertu beharreko gaia da (aukera ezberdinak, kostuak...) eta horren arabera erabaki beharko dute politikoeak.

30 urte bete diren honetan, zer sentitzen duzu?

Gustora nago. Lagun asko egin ditut, gurusoak beti egon dira laguntzeko prest eta, oro har, lan ona egin dugula uste dut. Hobeto egin zitekeen, jakina, baina beti oso baldintzatuta egon gara, eta uste dut ondo aprobetxatu dugula. Herritarren iritzia, oro har, positiboa dela uste dut, bai Aloña Mendin egindako lanarekin, eta baita igerilekuan ematen diren ikastaroekin ere. Uste dut lan txukuna egiten dugula.

Noiz arte jarraituko duzu?

Jubilatu arte. Hiru urte geratzen zaizkit. Puntu. Gero lagunketan jarraituko dut, baina uste dut beharrezkoa dela belaunaldi errelebo bat, eta jende gazteagoa sartzea.

Mendi irteera Aloña Mendirekin / abenduak 20

Bizkaiako bira egiten duen GR-123 kostaldeko bidean barrena, Saturraran eta Lekeitio artean izango da Aloña Mendik hil honetarako antolatutako duen irteera. Guztira 16km. eta 500 m.ko desnibela, 5 bat ordutan egitekoa. Izen ematea hilaren 17a baino lehen Aloña tabernan (Bazkideak 10€, ez-bazkideak 13€, langabetuak 5€). Federatuta egon behar da.



Andoni Ugartek kontratua luzatu du Realarekin 2018ra arte

2016ko udan amaitzen zen oñatiarraren kontratua Realarekin, baina kontratua luzatzea adostu dute alde bietan, gutxienez, 2018ko ekainaren 30era arte jarraituko du Ugartek Realean. Alebin eta Infantil mailako lehen urtean Aloña Mendin jokatu ostean iritsi zen Realera orain dela zortzi urte, eta kategoria guztietatik pasa ondoren, 2.B mailako taldean ari da.



Sara Gomez eta Yeray Varela podiumean

Promesa mailako bere lehen lasterketan 3. postuan helmugaratu zen Sara Gomez Aloña Mendiko korrikalaria, Irungo krosean. Bestalde, Yeray Varela Azkoitiko herri lasterketa (10km.) irabazi zuen 31:12 denborarekin.

Ander Biain Gipuzkoako azpitxapeldun pilotan

Gipuzkoako eskuz banakako gazte mailako azpitxapeldun geratu da Ander Biain Aloña Mendiko pilotaria. Alegiko Aratz Irazustabarrenaren aurka jokatu zuen finala eta 22-8 galdu zuen.



Disko berria atera du Leizek

Lagash eta *Rock Privado* taldeetan aritu ondoren, azken bot urteotan *Leize* taldean dihardu Andoni Regueiro bateria-jole oñatiarrak. Plazaratu duten 'Cuando te muerden' disko berriari buruz hitz egin dugu berarekin.

Hilabete eta erdi, disko berria plazaratu zenutenetik. Nolako harrera izaten ari da?

Oso ona. Irraietara zabaldu dugu diskoa, eta kritika oso onak jasotzen ari gara. Jendea ez da geratzen abesti batekin edo bestearekin; oso lan konpletoa dela diote, bete-betea.

'Cuando te muerden' du izena lan berriak. Nolakoa da?

Nik uste dut *Leize* taldearen esentzia guztia biltzen duela. Hamaika abesti ditu; batzuk lasaiagoak, balada erakoak, beste batzuk *tempo* erdikoak, eta baita *heavy* estiloko kanta gogorragoak ere.

Leize-ren betiko *rock*-a dago, gogorra eta melodikoa, kritika soziala eginez eta, aldi berean, emozio eta sentimenduetan erreparatuz, errealitatetik oso gertu beti ere.

Ia bost urte dira Leizek hasi zinenetik. Zer eman dizu pertsonalki eta musikalki? Niretzat erreferen-



Oñati eta Aker tabernetan salgai 12€-tan.

tziako talde bat izan da beti *Leize*, *Su Ta Gar* eta beste batzuk bezalaxe. Beraz, amets bat egi bihurtzea izan da *Leize*-rekin aritu ahal izatea. Espainia osoan (Galizia, Andaluzia, Madrid, Valentzia,



Jon Ander Arzuaga

Bartzelona...) jaialdi handitan eta milaka pertsonen aurrean jotzeko aukera eman dit.

Musikalki, pilak jartzeko ere balio izan dit; ahal den ondoen jotzen saiatu behar duzu, eta horretarako orduak sartu behar dira. *Leize*-n hasi nintzenetik denbora gehiago eskaintzen diot bateriari, eta gustora nabil, ahal dudan guztia ikasten.

Beste proiektu batzuetan lan egiteko atea ere zabaldu dizkizu, ezta?

Bai, Bergarako orkestrarekin batera bi musikaletan ('*Peter Pan*' eta '*Miserable-ak*') parte hartzeko aukera izan dut eta, egia esan, izan dudan esperientziarik ederrenetakoa izan da, hainbeste musikarirekin batera jotzea, abesbatzarekin, antzezleekin... Oso polita.

Urtz taldearekin ere hiru kontzertutan jotzeko aukera izan dut, eta hau ere betetako amets bat izan da, *Urtz* ere nire talde gogokoenetako bat baita. Bakarrik falta zait *Su Ta Gar*-ekoek deitzea.

Hemendik aurrera zer?

Diskoa zabaldu eta kontzertuak lortzen ahalegindu. Aurreko bi asteburuetan Burlatan eta Burgosen izan gara, eta abendurako, Bartzelonan lottuta daukagu beste kontzertu bat.

Los Suaves talde galiziarren telonero moduan dihardugu estatu mailan egiten ari diren despedidako biran, eta horrek ere plaza inportanteetan jotzeko aukera emango digu.

Lagash taldean hasi zen zure ibilbidea, eta orain dela gutxi talde horretako kide zen Julian Hernandezek utzi gintuen, ustekabean.

Kolpe handia izan da, bai, pena handia. Lagun mina nuen Julian, ez bakarrik taldekidea; kuadrillako betiko lagunak ginen. Gainera, duela gutxi diskoa atera genuen *Lagash*-en 20. urteurrena ospatzeko, eta berriz ere jotzen hasteko animatzen ari ginen, eta begira. Pena handia izan da.

“Musikalki, pilak jartzeko balio izan dit Leize bezalako talde batean aritzeak”

Oñatiko faktoriako hiru disko Durangoko azokan

Gela Berezia, Antihumano eta Juan Valls-en lan berriak aurkituko ditugu Musikazuzenean stand-ean



A benduaren 4tik 8ra egingo den Durangoko azokako 'Musikazuzenean Komunitatea'-ren *stand-ean* Oñatin sortu eta ekoiztutako hiru disko aurkeztuko dira.

Durangoko liburu eta disko azoka erakuslehiu handia da Euskal Herriko musika taldeentzako, baina, hala ere, hasiberria den talde batentzat eta ohiko musika industriatik at lan egiten dutenentzat zaila izaten da toki bat aurkitzea bertan.

MUSIKAZUZENEAN KOMUNITATEA

Horregatik, Musikazuzenean Komunitatearen helburua da diskoak auto-ekoizten dituzten taldeei leiho bat eta aukera bat ematea. Hala, 2015ean zehar argitaratu eta auto-ekoizpen bidez editatutako diskoen topaleku eta eskaparate bihurtuko da. Eta aurten Oñatik presentzia berezia izango du bertan, Zubillagako Izzu Grabaketak estudioan ekoiztutako hiru disko aurkeztuko baitira bertan.

Gela Berezia hirukoteak -Ander Ugarte (bateria), Ander Astigarraga (gitarra eta ahotsak) eta Aitor Hernandez (baxua eta ahotsak)- zazpi abestidun diskoa plazaratu du. Errokaldeko sotoan 2010ean sortutako talde honek abesti gogorrek eta erritmo zail eta kutsakorrekoak egiten ditu, kritika latzak eginez gaur egungo egoera sozioekonomikoari.

Antihumano taldeak ere -Ander Korkostegi (gitarra eta ahotsa), Iñaki Zubia (bateria eta ahotsa) eta Xabi Elorza (baxua eta ahotsa) izen bereko diskoa kaleratu du zazpi abestirekin. Duela urtebete sortutako talde honek punk/hardcore musika lantzen du; abesti azkarrak, soinu gogorrekoak eta indartsuak egiten ditu, gizakiaren eromen suntsitzailea arbuiatzeko.

Juan Valls bakarlari oñatiarrak *Life Holds Red Lights On Behind* izeneko bere bakarkako lehen diskoa kaleratu du, gitarra eta armonika lagun dituela. Pako eta Boga tabernetan daude salgai diskoak 5 eurotan.

HERRI ANTZERKIA / ABENDUAK 5, SANTA ANA ARETOAN, 19:30etan ETA 22:30etan

‘IPARRAGIRRE OÑATIN’



laz herritar asko antzezlanak ikusteko aukerarik gabe geratu zela kontuan hartuz, aurten berriro taularatuko dute ‘Iparragirre Oñatin’ herri antzerkia abenduaren 5ean. Jose Maria Iparragirre (1820-1881) Urretxuko olerkari eta musikariaren omenezko antzezlanak da, Iñazio Irizarrek idatzia. Ameriketara hainbat urtez ibili ondoren, Oñatira egindako azken bisitaldiko gorabeherak kontatzen ditu. Iparragirreraren bizitzaren errepasoak egiten da eta, jakina, musikak leku nabarmena du ikuskizunean. Olaitturri elkarteak aktoreez gain, herriko hainbat musikaririk ere parte hartzen dute. Bi emanaldi egingo dituzte Santa Ana aretoan: 19:30etan eta 22:30etan

OÑATI ABESBATZAREN GABONETAKO KONTZERTUA / abenduak 19



Urtero bezala Gabon giroko kontzertua eskainiko du Oñati Abesbatzak abenduaren 19an Agostiñoen elizan (20:00). Lehenengo zatian herrialde eta estilo ezberdinetako bost kanta abestuko dituzte Mirengu Plazaolaren zuzendaritzapean. Bigarren zatian Gabon giroko beste bost kanta eskainiko dituzte (Aita Madinaren ‘Gabon gaua’, Luis Mallearen ‘Haur maitagarria’, Bitoriano Gandiagak idatzi eta Pello Zabalak musikaturtako ‘Gabon dut anuntzio’...) Loli Ordokiren zuzendaritzapean eta Esteban Irusta organoan delarik.

INPROBISAZIO GALA, IRAZAN TALDEKOEN ESKUTIK



‘Hiru hilabete joan dira Irazan Antzerki Gunea eratu zenetik, eta urtarrilaren 8an jendaurreko lehen saioa eskainiko dute. Inprobisazio Gala bat izango da, dinamikoa eta sorpresaz betea. Beraz, hilabete falta den arren, apuntatu agendan. Oñatin antzerkizalatasuna sustatzeko asmoz sortu zen Irazan, eta oso erantzun ona izan du; nagusien taldean 33 lagun ari dira, eta gazteenean 15.


IPUIN KONTAKETA

3-6 urteko haurrentzat



‘Ostegun Kontalariak’ programaren barruan, ipuin kontaketa saio bat egoten Haur Liburutegian hileko azken ostegunetan. Abenduakoa, Gabon jaiak kontuan hartuz, aurreratu egingo da eta hilaren 17an izango da, 3-6 urte arteko haurrentzat, Iraitz Lizarragaren eskutik. Abenduaren 9an hasiko dira gonbidapenak banatzen.

‘Y los vascos se echaron al mar’ liburua argitaratu du Jose Antonio Azpiazuk



Itsasoak euskaldunen historian izan duen garrantzia jorratzen du Jose Antonio Azpiazu historialariak argitaratu berri duen lan berrian. Kostaldekoak ez ezik, barrualdeko herriak ere itsasoari begira egoten ziren, merkatuetarako atea baitzen. Ildo horretan, Indietako edo Ternuako negozioetan aritu ziren zenbait oñatiarren erreferentziak ere aurki daitezke liburuan.

Gazteentzako ‘Urpekariak’ eleberria argitaratu du Fermin Etxegoienek



Irakurle gazteei zuzendutako bere lehen nobela plazaratu du Fermin Etxegoien idazle eta kazetari oñatiarrak. ‘Urpekariak’ (Erein) eleberria 14 urtetik gorako neska-mutilei zuzenduta dago. Maitasuna ezagutzeaz bat, aitaren bakardadea ikusiz sentimendu gazi-gozaok bizi dituen gazte baten istorioa da. Durangoko azokara Erein argitaletxeak eramango duen nobedadeetako bat da

‘BERTSOTRUK’ ekimenaren lehen saioa abenduaren 12an, gaztetxean

Euskal Herrian zehar dauden bertso eskolek elkar ezagutu eta harremanak sendotzeko helburua duen ekimena da Bertsotruk. Guztira 26 bertso eskolek parte hartuko dute, 3 edo 4ko taldeetan banatuta. Oñatikoak Sakana eta Larrabetzu-Murgiako bertso eskolekin osatuko du taldea, eta maiatza bitartean joan-etorriko saioak antolatu behar dituzte nahi duten formatuan.

Oñatiko taldeari dagokionez, dagoeneko aurreikusita daude bi saio. Lehenengoa Oñatiko gaztetxean izango da abenduaren 12an (20:00), eta bigarrena Mungian, abenduaren 18an, herriko tabernetan egin ohi duten bertso-trama erako ekitaldiarekin bat eginez.

Zehazteko gelditzen dira Mungia-Larrabetzukoak noiz etorriko diren Oñatira, eta oñatiarrak Sakanara joango diren eguna.

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Gipuzkoako txapelketako finalerako Oñatiko Bertso Eskolak antolatu duen autobusa 14:30etan irtengo da Korreos-etik. Txartelak Txokolateixan daude salgai hila-ren 11ra arte, edo agortu arte. Buelako autobusa non hartu Donostian bertan argituko dute.

Seguruenez, finaleko protagonistetako bat baino gehiago ikusiko dugu Errege bezperako Oñatiko bertso saioan.

Kafe OTAMENDI Taberna

Inportazioko Garagardoak

Gosariak

GABON JAI ZORIONTSUAK!!

Martzelino Zelaia 1 • Tel.: 943 78 19 49

Oñatiri buruzko

JAKINGARRIAK

> Jaumendi, kondearen urkamendia

Hori egiaztatzen duen agiri ofizialik ezagutzen ez badugu ere, Oñatiko kondeak urkamendia izan omen zuen gaizkileak zigortzeko eta “justizia” egiteko. Inoiz, herriko plazan bertan ere jarri omen zuen urkamendia, baina normalean Jaumendi tontor gainean omen zegoen, Zumeltzegi dorrearen pare-parean hain justu.

Ez daukagu horren lekukotasun edo frogarik, baina Behe Erdi Aroan Euskal Herriko hainbat lekutan heriotza zigorra ezartzeko biderik ohikoena zen urkamendia. Nafarroan, esaterako, dokumentatuta dago urtean batz best 27 exekuzio burutzen zirela. 1347an hautsi zituzten marka guztiak, 100.000 biztanleko erresuman 87 pertsona heriotzara kondenatu eta hil zituztelako. Zigorra betetzeko biderik ohikoena (%71) urkamendia zen; %15 ito egiten zituzten, %4 amildegian edo kanpandorrea behera botatzen zituzten, eta beste hainbeste sutan erretzen.

Oñatira etorrira, adibidez, Salvatore Mitxelenaren (1919-1965) *Arantzazu, euskal-sinismenaren poema* liburuan aurkitzen dugu Oñatiko kondearen urkamendiari buruzko aipamena, Arantzazuko Amak herriari ekarri zion pakeaz, eta Oñatiko herriak jauntxo-petik askatzeko egindako ahaleginari gorazarre eginez. Honela dio ‘Pakea’ (Bidea Urratzen) ataleko bertso batean:



*Jaumendi-goian jarria zeukan
Kondeak urkamendia,
aren bildurraz kukiltze-arren
mendekoen kutizia.*

*Ala ta ere ezin ito, orde,
samindunen intzeria:
Ama on batek Arantzazutik
entzuten zuan guzia!*

Beste kronika batzuetan ere aurki daiteke Oñatiko urkamendiari buruzko aipamenik. Hala, Lur entziklopediaren Aro Berriko historia atalean hauxe irakur daiteke: “1538an Oñatiko herritar batzuek, beren errejimentua buru zutela, jaunak justizia egiteko baliatzen zuen urkamendia bota eta beste urkamendi bat altxatu zuten

hiribilduaren kontura. Erregearen kontseiluak erbesteratze zigor batzuk eta isun batzuk ezarri zituen, eta alkatea izan zen zigortuena, pikotan jarri baitzuten jendaurrean lotsarazteko, eta karguak izateko ezindu.

Urkamendia lehengo lekuan jarri zuten berriz ere, baina 1602an urkamendia plazara eramatea erabaki zuen Oñatiko kondeak, elizaren eta Otaduy apezpikuaren jauregiaren aurrean jartzea (honek herriari laguntzen baitzion kondearen aurkako auzietan). Herriak laidotzat hartu zuen lekualdatze hori, eta ezinbestean auzitara berriz jo ondoren, azkenean urkamendia hasierako lekura eraman zuten, Jaumendira, alegia”.

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

S distira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solariuma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa

San Lorenzo 4. behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

HISTORIA TXATALAK

'Botarria' antzinako pilota jokuen lekuko



> Argazkiko harriak, plazako jolas-lekuan, dukearen etxeko orma kontratan zokoratuta dagoenak, badu bere historia, Oñatin XVIII. mendean jokatzeko zen *Bote luze* eta *Errebote* pilota jokuetan satea egiteko erabiltzen zen botarria edo sakarria baita.

Ez dakigu noizkoa den. Pilota jokuekin lotutako Oñatiko lehen testigantza idatziak 1750ekoak dira. Ordurako bazen Oñatin "pilota joka-leku" bat plaza inguruan. Bere pareta bakarra orduko jesuiten konbentuko ortuaren (gaur egungo Pago Uso elkarte) sarrerara itsatsita zegoen. Plaza erdiraino iristen omen zen, eta *Bote luzean* nahiz *Errebotean* jokatzeko zen bertan, frontis barik, lau edo bost pilotariko taldeak elkarren aurka pilotalekuaren alde banatan.

Gaur ezagutzen dugun pilotalekua 1857an eraiki zuten, plaza berritzearekin batera. Pilotalekurako harria San Anton plazako harrobitik atera zuten. Hiru urtez luzatu ziren lanak eta 1860ko uztailan inauguratu zuten.

Garagaltza

> Jerardo Elortza

Topografia zaila dauka Garagaltza auzoak. Aldapatsua batik bat. Artixa errekaaren maldetan kokatzen da, baina alde bietan. Eskumakoan gehien bat, nahiz eta baserri batzuk (Altzingoa eta Albarritza biak, adibidez) ezkerreko lurretan dauden; gainera, Paanar errekatxoan gora, Aretxabaletako mugaraino igotzen den ziri-formako baso-eremu estu eta malkartsua ere ezkerrealdeari dagokio. Beraz, eta sarritan hala gertatu arren, ibaiak ez dira beti bereizgarri. Garagaltza mugakide da Goribar, Torreauzo, Zañartu, Urruxola, Uribarri eta Lezesarri auzoekin, baita hiriguneko zatitxo batekin ere.

Hemen ere forma bat baino gehiago erabili izan da auzoa izendatzeko. Erdi Aroan Okomardia (?) eta San Pelaio; geroago Garagaltza edota San Juan. Lehenengo hirurak baserriak dira gaur egun: Okumardin, Santipillau eta Garagaltza (Haundi eta Txiki); laugarrena, berriz, beste hainbat kasutan legez, ermitaren adbokaziotik dator: gaintxo batean, kaletik bistan dugun San Juan basiliza polit horretatik, alegia. Dena den, ez zen auzoko ermita bakarra izan. Aztarnarik gelditu ez bada ere, badirudi, duela mende asko, aipaturiko Santipillau baserri ondoan Santo Pelagio edo San

AUZORIK AUZO

Pelaioi eskainitakoa egon zela; eta XIX. gizaldira arte, Kurtze Santu izenekoa, Kurpidetik eskumarantz dagoen paraje batean.

Beste auzo askorekin mugakide da Garagaltza

Garagaltza nagusiki nekazaritza-giroko auzoa izan da luzaroan. Baserri eta erroten inguruan osatu zen bere ekonomia. Errota garrantzitsuenak XV-XVI. gizaldietatik aurrera Zuazolan eta Lamiategin kokatu ziren, Artixa errekaaren eskuineko ertzean, guk geuk lanean ezagutu ditugunak. Eguzkitza errekatxoan zegoen Errotatxo izenekoa lehenago ezkutatu zen, baina etxeak eta toponimoak han jarraitzen dute. Bestelako lanbidetan ere jardun zuten auzo honetan XX. mendean: teilerietan, esaterako, Okumardin nahiz Arregi baino beheratxoago denbora laburrean aritu zen Garagaltzakoan.

Oñatiko abizen batek baino gehiagok du jatorria San Juan auzoan: Arregi, Idigoras eta Leibar izango dira hedatuak: Arregitarrak, besteak beste, Arantzazu auzora joan ziren XVIII. gizaldian; oso zabaldua dagoen Idigoras deitura egungo Iruatz baserrien forma zaharretik dator; Leibar, berriz, Arregi eta Lamiategi bitartean zegoen baserria genuen, Larraña auzokoarekin nahastu behar ez dena. Zuazola, Garagaltza eta Gazteluondo abizenak ere sarritan agertzen zaizkigu herriko paper zaharretan. Gazteluondo (oraingo Gaztelondo) dela-eta, aspalditxotik izan dugu susmoa San Juan ermita baino goraxeagoko muino estrategiko horretan kontrolerako gaztelutxo edo dorretxoaren bat eraiki zela Erdi Aroan. Mereziko luke indusketa arkeologiko bat egitea.



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak



Bereaz Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 8
Tel. 943 78 02 21

BUXALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia



Larraña auzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI

Baserriko ogia, egurrezko liburuak

AGENDA

12 ABENDUA



PILAZOAK

> **ABENDUAK 12 16:30/18:00**
TOMAXEN ABENTURAK



Urgain eskolak antolatuta 'Festara!' ikuskizuna Zuazola institutoan. Bi saio egongo dira, 16:30etan eta 18:00etan. Sarrera (4€).

ANTZERKIA

> **ABENDUAK 13 / 12:30**
FUTBOLARIAK ETA
PRINTZESAK



7-12 urte arteko haur eta gaztetxoentzat. Topiko sexistekin hautesi nahi duen komedia azkarra.

GABONETAKO KONTZERTU BEREZIA

> **ABENDUAK 13**
PARROKIAN, 19:00

Musika Banda, Oñati Abesbatza, Ganbara Abesbatza, Ganbara Txiki, Parrokiko koruak eta Txantxiku ikastolako abesbatzarekin. Diru-bilketa egingo da MALI ko elkartasun kanpainarako.

LIBURU AURKEZPENA

> **ABENDUAK 16**



HISTORIA UNIVERSAL DE LOS HOMBRES GATO
Josu Arteagaren nobelaren aurkezpena gaztetxean.

TOPAKETAK

> **ABENDUAK 11-12-13**
ESKUALDEKO GAZTETXEEN
TOPAKETA OÑATIN
Eztabaidak, kultur ekintzak, liburu aurkezpenak...

KONTZERTUAK

> **ABENDUAK 18**
TUTAN COME ON / KIMERA



Stoner-rock musika egiten duen Gasteizko bikoa, eta rock gogorra egiten duen Oñatiko kimera taldeak joko dute Antixena gaztetxean.

> **ABENDUAK 19 / 18:30**
GABON KANTAK
Aita Madina txistulari taldea eta Jose de Azpiazu musika eskolako akordeoilarien eskutik herriko plazan.

> **ABENDUAK 19 / 22:00**
IXILIK / ETS / ZE ESATEK!
taldeak Gaztelekuan (5€).



Rock/reggae/ska musika egiten duen 'Ze esatek!' talde ganberroa ariko da Oñatin.

ELKARTASUNA

> **ABENDUAK 19**
GOBERNUZ KANPOKO
ERAKUNDEEN AZOKA
Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta, GKE-en azoka Foruen enparantzan (9:00-15:00).

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



JAIALDIK

> ABENDUAK 13 / 18:00

JOSTUNEN EGUNA
Santa Lutzia eguna, Jostunen Eguna ospatuko dute Lagun Leku elkartearen jostuntza erakusketa batekin. Bi jostun beterrana omenduko dituzte eta moxal pintxo dastaketa ere egongo da.

> ABENDUAK 18 / 18:00

TXITORRA JANA ETA DANTZALDIA PAKE LEKUN

Tiketak abenduaren 15 eta 16an (18:30-20:00) hartu behar dira. Baz-



kideak 1€, eta ez-bazkideak 2€.

ANTZERKIA 'Itsasoaren emazteak'

> ABENDUAK 18 SANTA ANA, 22:30

Oinkari Dantza Taldea eta Hika antzerki taldearen eskutik. Euskal dantza tradizionala oinarri hartuz, Euskal Herriko kostaldeko arrantzaleen emazteen bizipenak kontatzen ditu. 60 dantzari, 4 musikari eta 2 aktore taula gainean. Sarrerak (10€) <http://bibe.me> atarian edo lehiatilan.

OHAR ETA DEIALDIK

> MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK SAN MARTIN EGOITZAN ETA EGUNEKO ZENTROAN

Jose de Azpiazu musika eskolako gitarra eta akordeoi taldeek eta abesbatzak San Martin egoitzako kultur astean parte hartuko dute abenduaren 10ean (18:00), eta hilaren 21ean Gabon kantak abestera joango dira. Bestalde, hilaren 29an Eguneko Zentrora joango da akordeoi taldea Gabonak ospatzera.

> **KOTILLOIA GAZTETXEAN** Abenduaren 3n kotilloia egingo da Antixena gaztetxean herriko Djek girotuta.

> IRRIEN LAGUNAK ANTIXENA GAZTETXEAN

Laugarren urtez jarraian Irrien Lagunak taldeko pailazoak Oñatiko gazte-txera etorriko dira beraien ikuskizun berriarekin. Martinbertso eta Tiritatxok euskararen osasuna aztertuko dute, eta euskara osasuntsu mantentzeko botika adostuko dute ikusleehen partehartzearekin. Urtarrilaren 10ean izango da ikuskizuna, eta abenduan zehar jarriko dituzte sarrerak salgai.



LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Narratiba liburua
"ZU"



Liburua
"Bizi ondorengo heriotza"



Poesia liburua
"Txantxanberde kantaria"



Poesia liburua
"Mundua betetzen zenuten"



Gazte literatura
"Argiaren alaba"



Gazte literatura
"Urpekariak"

MERKATU TXIKIA

> **Duplexa** salgai erdialdean. 150m² baliagarri dituen etxea; 17,50m²ko garaje itxia eta 100m²ko lorategia. Prezioa: 325.000€. Deitu: 609074127 / 649887917

> **Garajea** alokatzen da Bidebarrietan. Interesatuak deitu: 629489613

> **Etxebizitza** salgai Oñatiko erdigunean; 68m², bi logela, komuna, sukaldea eta egongela. Guztiz hornitua. Prezioa: 179.000€. Deitu: 659720664

> **Egurrezko** tornoa duen egurrezko lan-mahaia saltzen da. Deitu: 695758526

> **Saharar** emakumea hiru hurrekin alokatzeko etxe bila dabil. Oso urgentea. Deitu: 678301165

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI

Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

ODOL ATERALDIA

Hile honetako odol ateraldia abenduaren 11an izango da Txantxiku Ikastolako aretoan 17:30-19:30

GUARDIAKO FARMAZIAK



ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Abenduak 4, 5, 6, 7, 8, 16, 17, 26, 27 eta 30.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Abenduak 9, 10, 18, 19, 20, 24, 25, 28 eta 29.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58
Abenduak 11, 12, 13, 21, 22 eta 31.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28
Abenduak 14, 15 eta 23.



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Zer xabillagu/xabiñagu?

Jon: Zer Karen, lanera?

Karen: Bai, pozik gaiñera!

Jon: Nun habil, ba?

Karen: Ba, astian hiru aldiz faten nauk etxe batera, hango jiria egin eta amandria bat zainketara. Eta hik, zer?

Jon: Ba, etxakonat lanik, ordaindudakorik esan gura xonak. Goizetan eskola profesionalera faten naun eta arratsaldeetan tailler batera praktikak egittera.

Karen: Jo, orduan nere antzera, **karteria mehe samarra eukiko dok!**

Jon: **Mehia bai mehia**, baiña igual don, oraindik astegoixenetan trago batzuk joteko lain baxakonagu bai, eta etxagon kuidadurik!

Karen: Bueno, bueno, Jon, eutsi umore horri ahal doken bittartian, eta egubakoitz gabian ikusiko gaittuk!

Jon: Bai, bai, betiko lekuan egongo gaittun.

Karen: Ordura arte, ba!



Goguan hartzeak

ORDUA ZELA ESKRIBIU

Herrikitik Batura desbardinttasun batzuk dagoenez -laruz markauta agiri diranak-, bi tabla egingo dittugu horreik ikusteko:

Zer ordu da?	
Herrikuan	Batuan
Ordu bata k dira	Ordu bata da
Ordu bi x ak dira	Ordu biak dira
Hirurak dira	Hirurak dira
Laurak dira	Laurak dira
Bostak dira	Bostak dira
Seirak dira	Seiak dira
Zazpirak dira	Zazpiak dira
Zortzirik dira	Zortziak dira
Bederatzi x ak dira	Bederatziak dira
Hamarrak dira	Hamarrak dira
Hamaikak dira	Hamaikak dira
Hamabi x ak dira	Hamabiak dira

Ordu bata**k** eta laurdenak (laenak) dira

Ordu bat eta erdi**x**ak dira

Ordu bata**k** laurden (laen) gutxi dira

Ordu bata**k** (puntuak) **dira**

Zer ordutan?	
Herrikuan	Batuan
Ordu batetan	Ordu batean
Ordu bittan/bixetan	Ordu bietan
Hiruretan	Hiruretan
Lauretan	Lauretan
Bostetan	Bostetan
Seiretan	Seietan
Zazpiretan	Zazpietan
Zortziretan	Zortzietan
Bederatzi tan /bederatzi x etan	Bederatzi etan
Hamarretan	Hamarretan
Hamaiketan	Hamaiketan
Hamabittan/hamabixetan	Hamabietan

Ordu bata**k** eta laurdenetan (laenetan)

Ordu bat eta erdi**tan**

Ordu bata**k** laurden (laen) gutxitan

Ordu batetan (puntuak)

Esaera zaharrak osotu

1. Jokua ezta errenta, hoba
2. Hori dok hitza, eta ez
3. Bizi danak,
4. Ikusi eta itsu, entzun eta
5. Osasuna, munduko

Aukerak: gor egin, hilttia zor, oillaskua erreta, ondasuna, ur gaiñeko bitsa

EUSKERAZ EGOGI

*Bagekigun,

*zeukatzun,

*geukagun,

*oskuzun,

*bazekitzu...

Forma pleonastikuak esaten xate holakuai eta pertsona-morfemia (-gu eta -zu batez be) aditz laguntzaillian bi aldiz sartzeruskuan sortzen dira. Lehenaldiko formak oraiñaldikuen moduan egittetik dator akatsa. Ikusi degi-gun zela egin bihar diran:

Oraiñaldixan/Lehenaldixan

-Baldintza badakigu (orain)

-Baldintza bagekixen (lehen)

-Esku artian ardo-zahatua dako**zu** (orain)

-Esku artian ardo-zahatua zeukan (lehen)

-Datorren astian ezta**gu** lanik (orain)

-Fan zan astian ezkeukan lanik (lehen)

-Sari ona emun dos**ku**zu (orain)

-Sari ona emun zos**ku**n (lehen)

Baldintzan

-Bazeki zer entzun doten!

-Bazekiei nundik nora ibilli naizen!

Esaera zaharra osotu
1. oillaskua erreta
2. ur gaiñeko bitsa
3. hilttia zor
4. gor egin
5. ondasuna

ERANTZUNAK



Emakume langilliak Oñatiko fabriketan



Gaur egun emakumiak industria-lanetan jardutia normala dan arren, sasue batian etzan hola leku gehixenetan. Hala ta guztiz be, gure inguru honetan **Oñati**, Bergarakin batera akaso, **desbardiña zan** beste herri batzuekin konparau ezker: aspalditxotik, **andrazko langille ugari** ibilli zan hemengo tailler eta fabriketan, Oñatin sortu ziran enpresen ezaugarriak hori eskaketan euelako, biharbada.

Gure herrixan lehenengo industria modernua **Kornelio Garai** **bedoñatarrak** Goribar auzoko ola zaharrian **1864an jarri eben** **pospolo-fabrikia** izan ei zan. Gorabehera batzuekin **1903ra** arte iraun eben. **Hirurehun bat langille** eukittera aillegau zan, **emakumiak eta umiak gehixenak**, zeregin haretarako egogixaguak ziralako eta gizakumiairi baiño gutxiago pagaitten xatelako, seguru asko. Hemezortzi bat urteko tartiarekin **1921an zabaldu zittuan berraro atiak Garai** fabrika. Orainguan **guardasolentzako monturak** eta era askotako **odixak (tubuak)** egitteko. Harrezkero, ixa ehun urtian, emakume oñatiar askok jardun dau Garaiñeko fabrikante moduan, guardasolen saillian batez be.

Baiña etzan ha emakumiari lana eskintten otsan enpresa oñatiar bakarra. Jakiña da **txokolateriak** hemen euki euen inportantzia. Aurretik tailler txikiñak baziran be, **1938tik** aurrera lantegi haundixaguak sortu ziran: **Loyola** eta **Zabor**, adibidez. Txokolate-fabrika honeittan neska ugarik topau euen lan-lekua eta geldiketan dan **Natra-Oñati** izenekuan be emakumiak izango dira langillerik gehixentsuenak. Kale Zaharrian lehenengo eta Ibarra ondoen jaso zen **Tximist** (Cegasa) **pila-fabrika** eta Ibarra bertan egon zan **Dyna** (Solaun y Rubio geruago) **plantxa-fabrika** be andra dezente ibili zan lanian. Eta ezin ahaztu Oñatiko hiru zotz-lantegittan jardundakua: Zubillagako **El avión**, Madalenako **Nik** eta Lezesarriko **Betik** izeneko **palillo-fabriketan**.

Argazkixan agerketan diran emakume eta gizonak Garaiñeko fabrikantiak ziran **1956xan**, guardasolen montajian eta nikelian ebitzein batzuk. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue:

Karmen Arriaran, Lekunbarrikua; **Pili Txintxurreta**, Bidebarrietakua; **Maria Etxaniz**, Kale Zaharekua; **Narziso Zubizarreta**, San Antue kaleko leiztarra; **Rafael Madinabeitia**, Kale Zaharrekua; **Andres Urresti**, Atzeko kalekua; **Modesta Aranburu**, Kale Zaharrekua; **Fermin Zubia** Olabarrietako Muñokoa; **Marilu Ugarte**, Arantzazu kalekua; **Martzelino Axpe**, Garagaltzako Santipillau baserrikua; eta **Luis Zilaurren**, Lekunbarrikua.

J. E.

Fotografia Garai fabrika orduan Goribargoitti baserrira begira eukan atzekaldian atarata dago. Eztakigu nor izan zan argazkilarixa. Guri Karmen Arriaranek eskuratu dosku. Argibidiak, berriz, Karmenek berak, Joxe Mari Jauregialtzo, **Paikok**, eta Felisa Ormazabalek emundakua dira. Milla esker!

Orain



banak importa



BANAK

Zerkaosteta, 3

Tel.: 943 71 10 11



zuretako
zuzenean...

SOFA LEKU - KOLTXOI LEKU

Zigarrola, 1

Tel.: 943 79 15 03

GABONETAKO APAINGARRIAK BEHAR DITUZU??



AMUEBLADORA MONDRAGONESA TALDEAK, GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE!!



centro hogar MUEBLES

